

# Euskal Autonomia Erkidegoko instalazio elektrikoetan hegazti-fauna elektrokuta ez dadin eta haren aurka talka egin ez dezan ingurumen-kontrola hobetzeko proposamenak

Arartekoaren 1/2021/RGO Gomendio Orokorra, 2021eko otsailaren 8koa

**ararteko**

Herriaren Defendatzailea  
*Defensoría del Pueblo*



## Arartekoaren 1/2021/RGO Gomendio Orokorra, 2021eko otsailaren 8koa

**Euskal Autonomia Erkidegoko instalazio elektrikoetan hegazti-fauna elektrokuta ez dadin eta haren aurka talka egin ez dezan ingurumen-kontrola hobetzeko proposamenak**

### **1. Aurrekariak. Espainiako Ornitologia Elkartearen (SEO/BirdLife) erreklamazioa.**

Arartekoaren gomendio orokor honek [Espainiako Ornitologia Elkarteak](#) (SEO/BirdLife) 2018ko ekainean aurkeztutako erreklamazioan dauka jatorria. Bertan, hegaztiak linea elektrikoetan elektrokutatuta edo lineen euskarrien kontra talka eginda hiltzeko duten arriskuaren inguruko kezka azaldu zion elkarteak Arartekoari.

Ingurumen-elkarte horrek hegaztien kontserbazioa du xede, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eroapen elektrikoko egitura batzuen kontra talka egin eta elektrokutatuzeko arriskua murrizteari begira erregulatuta dauden neurriak benetan betetzea bermatzeko nahia adierazi zuen.

Elkartearen arabera, hiltzeko arrazoi horixe da, Espainian, hegazti-kopuru handi batentzako mehatxu nagusietako bat; gainera, galzoriko espezieetat jotako hegazti-fauna ere horien artean dago. Bada, elkarteak ikerlan bat aipatu zuen. Bertan ohartarazten zenez, lurralde espainiar osoko linea elektrikoek 33.000 hegazti harrapari ingururen heriotza eragiten dute urtean<sup>1</sup>. Ikerlan berak adierazten duen moduan, elektrokuzioaren arazoa biziagoa da eremu irekietan (hala nola, mediterraneoan), eremu atlantikoetan baino<sup>2</sup>. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Arabako lurralde historikoak intzidentzia-maila ertaina zuen; Gipuzkoako nahiz Bizkaiko lurralde historikoetan, berriz, elektrokuzio-tasei buruzko daturik ez zegoenez, elektrokuzio-maila oso baxutzat jotzen zen. Nolanahi ere, elkartearen hitzetan, hautemandako hegaztien heriotza-tasak benetako heriotzen

---

<sup>1</sup> 2017ko ekaineko txostenean, hegazti harrapariak hamaika autonomia-erkidegotan dituzten heriotza-tasak estrapolatzen dira. Zuzendu beharko lirakeen linea elektrikoetan elektrokutatuta hiltzen diren harraparien kopuru balioetsia 11.000 eta 33.000 artekoa da. M<sup>a</sup> Ángeles Soria eta Guil Celada, Francisco: *"Primera aproximación general al impacto provocado por la electrocución de aves rapaces: incidencia sobre las aves e impacto económico asociado"* [.https://www.researchgate.net/publication/318085758\\_Primer\\_aproximacion\\_general\\_al\\_impacto\\_provocado\\_por\\_la\\_electrocucion\\_de\\_aves\\_rapaces\\_incidencia\\_sobre\\_las\\_aves\\_e\\_impacto\\_economico\\_asociado](https://www.researchgate.net/publication/318085758_Primer_aproximacion_general_al_impacto_provocado_por_la_electrocucion_de_aves_rapaces_incidencia_sobre_las_aves_e_impacto_economico_asociado)

<sup>2</sup> GUIL, F., COLOMER, M. À., MORENO-OPO, R., MARGALIDA, A. 2015. Space-time trends in Spanish bird electrocution rates from alternative information sources. *Global Ecology and Conservation*, 3, 379-388.

zati txiki bat irudikatzen duela iradokitzen zuen ikerlanak, heriotza horiek ezin daitezkeelako detektatu laginketarik egiten ez bada edo hilotza desagertzen bada.

SEO/BirdLife elkarteak Arartekora jo zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko problematika haren iritzipean uzteko; izan ere, txostenek hegazti-faunaren intzidentzia txikiagoa dela esaten badute ere, indarreko ordenamendu juridikoan erregulatzen diren administrazio-neurrien betetze-maila ebaluatu behar da, linea elektrikoaren titularrei Euskal Autonomia Erkidegoko hegazti-faunarentzat arriskutsuak diren linea elektrikoak zuzendu ditzatela eskatzeko.

Batetik, [abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan](#) jasotzen diren aurreikuspenak bermatzea oso garrantzitsua dela aipatzen zuen kezan, «babes-eremu» deiturikoetan dauden goi-tentsioko linea elektrikoak eskakizun teknikoetara egokitu daitezen, hegazti-faunak haien kontra elektrokutatu eta talka egiteko duen arriskua murrizte aldera.

Bestetik, SEO/BirdLife elkartearen esanetan, neurri horiek benetan ezartzearekin batera, beharrezkoa da euskal administrazio publikoek ingurumena kontrolatzeko dauzkaten eskumenak (zehatzeko ahala) baliatzea, espezie babestuak hiltzen direnean eragindako ingurumen-kalte ordainaraztea eta, hala badagokio, espezie babestuei kalte larriak egiten zaizkienean zigor-arloko jurisdikziora jotzea.

Administrazioak linea elektriko batek eragindako elektrokuzio edo talka baten berri izaten duen aldiro, elektrokuzioa eragin duten euskarriak zuzentzea eskatu beharko lioke eskudun organoak haien jabeari. Euskarrien jabeak hala egin ezean, eskudun administrazioak natura zaintzeari buruzko legedia urratzeagatik aurreikusita dauden zehapen-ahalak baliatu beharko lituzke.

Elkartearen ustez, halaber, ingurumen-erantzukizuneko espedienteak ireki beharko litzaizkieke hegazti-fauna elektrokutatzea eragiten duten linea elektrikoaren titularrei, eragindako ingurumen-kalte konpon dezaten eta, prebentzio-printzipioa garatuz, ingurumen-kalte berriak ekidin daitezen, egokitu gabeko linea elektrikoaren mehatxu hurbila dela-eta.

Era berean, elkarte horren iritziz, administrazioak lineen titularrek izan dezaketen erantzukizun penalaren berri eman behar dio eskudun agintaritzari, baldin eta hegaztiak elektrokutatzea eragin duten euskarriak nahita konpondu ez direla ikusten bada.

Beraz, SEO/BirdLife elkarteak bere erreklamazioan azaldu zuen euskal administrazio publikoek ekintza horiek sustatu behar dituztela, alde batetik, linea elektriko arriskutsuak behar bezala konpontzen direla ziurtatzeko eta, bestetik, Euskadiko hegazti-faunari eragiten zaion kalte ahalik eta gehien murrizteko.

## 2. Eskudun administrazioen erantzuna. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

SEO/BirdLife elkartearen erreklamazioari erantzuteko, 2018ko urriaren 18an, Arartekoak gai hauen inguruko informazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari:

- Ingurumen-administrazio horrek 1432/2008 Errege Dekretua benetan betetzea sustatzeko xedez eta babes-eremuetan egokitu gabe dauden linea elektrikoen inbentarioan sartutako lineak konpontzea bermatzeko xedez abiatutako neurrien egoera.
- Euskal Autonomia Erkidegoan hautemandako hegaztien heriotzen aurrean ezarritako neurriak eta 2017ko urtarrilaren 1az geroztik hildako hegaztiei buruzko informazioa.
- Linea elektriko arriskutsuen titularrei hegazti-faunari egindako kaltea prebenitu eta konpontzeko erantzukizuna eskatzeko prozedura.

2018ko azaroaren 29an, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek hegazti-fauna ez elektrokutatzeko egindako jarduketei buruzko txosten teknikoa bidali zion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak erakunde honi.

*«1. gaia: Hegazti-fauna babesteari eta linea elektrikoei buruzko 1432/2008 Errege Dekretua benetan betetzeko neurrien egoera.*

*Arartekoaren idazkian bertan, xehetasunez azaltzen dira sail honek bere eskumenen esparruan burututako jarduketak. Laburbilduz, ikerlanak eta landa-lan mardula egin ditugu, honetara iristeko:*

*- Hegazti-faunarako babes-eremuak ezarri (Ingurumeneko sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren bidez onartu ziren).*

*- Babes-eremu horietan dauden linea elektrikoak aztertu eta 1432/2008 Errege Dekretuan ezartzen diren manu teknikoekin bat egiten ez dutenen inbentario lehenetsia egin. Inbentario lehenetsia Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean argitaratu zen, eta, 2018ko uztailaren 17an, dagoeneko identifikatuta dauden lineen titularrei jakinarazi zitzaien ebazpena.*

*Gainera, adierazi beharra dago Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webean egindako lanen memoriak argitaratu direla eta GeoEuskadira egindako kartografia igo dela, administrazio publikoek nahiz interesdunek eskura dagoen informaziorako sarbidea izan eta erabili ahal izan dezaten.*


*Natura Ondare eta Klima Aldaketako Zuzendaritzak dauzkan eskumenen esparruan, informazio hori erabiltzen da askotariko administrazio sektorialen prozeduretan natura-ondareari eragindako kalteei buruz egiten diren txostenetan, tartean linea elektriko kaltetuak badaude.*

**2. gaia:** Hegaztien heriotzen aurrean ezarritako neurriak eta 2017ko urtarrilaren 1az geroztik hildako hegaztiei buruzko informazioa.


Arartekoak ondo dakienez, Euskadin foru-aldundiak kudeatzen dute lurralde bakoitzeko basafauna, eta haienak dira fauna zaintzeko zerbitzuak zein fauna suspertzeko zentroak. Honako hauek dira heriotza-tasari buruz eman dituzten datuak:

**Gipuzkoa:** Talken eta elektrokuzioen ondoriozko heriotzei buruzko datuak 1986tik 2018rakoak dira. Grafikoan ikus daitekeenez, 2018ko abuztuaren 2an Olaberrian jazotako kasua kenduta, Iberdrolaren jabetzako linea baten hiru dorreren azpian zikoina zuriaren 9 ale hilda topatu baitziren, hildako hegaztien kopurua nahiko eskasa da. Kasu horri buruz, Gipuzkoako Foru Aldundiak esan digu linearen enpresa titularrari espediente zehatzailea ireki diotela.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi digunez, ez daukate linea elektrikoetan egindako konponketei buruzko daturik.



**Araba:** Gaur-gaurkoz, linea elektrikoaren kontrako talken eta elektrokuzioen ondoriozko heriotzei buruz dauzkagun datuak 2009tik 2018rakoak dira, eta grafikoan daude ikusgai.



2017ko heriotza eragin zuen euskarria konponduta dago; 2018ko gertakarietara dagokienez, berriz, euskarri bat konpondu egin dute, eta lineen titularrei gainerakoak konpontzea eskatu zaie.

Arabaren egindako konponketak, batez ere, «LIFE BONELLI (LIFEI2NAT/ES/070 1), C.3.1. ekintza: Linea elektrikoaren egokitzapena» proiektuaren esparruan egin dira. Proiektuaren txostenen arabera, honako jarduketak hauek egin ziren:

- 2014: Arabaren hegoaldeko mendilerroetako hegaztientzako babes bereziko eremuen (HBBE) inguruan dauden linea elektrikoaren 20,4 km-tan jardun zen. 80 euskarri zuzendu ziren, 88.510,50 euroko inbertsioarekin.
- 2017: Jabetza pribatuko bi linea elektrikotan jardun zen, bai Arabako hegoaldeko mendilerroetako hegaztientzako babes bereziko eremuetan, bai Valderejo-Sobrón-Artzenako mendilerroa KBE/HBBEan. Linea elektrikoaren 3,4 km-tan egin ziren jarduketak, eta 24 euskarri zuzendu, 50.759,50 euroko zenbatekoan.

**Bizkaia:** Oraingoan, ez dizkigute datuak bidali.

Bestalde, gogorarazi beharra dago 2002tik 2008ra bitartean linea elektrikoaren problematika jorratu zela Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren eremuan, hegazti-faunaren heriotza-tasari dagokionez, Iberdrolaren jabetzako lineen inbentario zorrotz batetik abiatuta. Bada, linea horietako batzuk 2007 eta 2008 urteen artean konpondu ziren, Eusko Jaurlaritzaren orduko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta Iberdrolaren artean sinatutako hitzarmen baten bidez, 200.000 euroko inbertsioarekin. Halaber, jarduketak egin ziren linea elektrikoaren 16,5 km-tan, Urdaibaiko sei lineatan.

Horretaz gain, ENIS - Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema aipatu behar da. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak sortutako tresna da, eta natura-ondareari nahiz haren elementuei buruzko informazioa integratzeko, kontsultatzeko eta aztertzeko sistema da. Gainera, datuak berrerabiltzea eta pertsonak eta erakundeak lankidetzan aritzea ahalbidetzen du.

ENISek, besteak beste, [www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus) herritarrentzako zientzia-atarian edo -plataforman emandako informazioa biltzen du. Atari horretan, faunaren heriotza-tasari buruzko modulua gaitu zuten apirilean, aipua sartzeko erregistro estandarizatua osatuko duen informazioa gaineratu dadin, hainbat arrazoiengatik (horien artean, linea elektrikoaren kontra talka egiteagatik edo elektrokutitzeagatik) hilik topatutako animaliei buruzko informazioa detektatzen eta ematen edonork lagundu ahal izatea sustatze aldera. Gaur-gaurkoz, ORNITHO atariak hegazti-faunaren heriotzei buruzko 64 erregistro jaso ditu 2015eko urritik 2018ko azarora bitartean, baina kasu bat bera ere ezin daiteke lotu linea elektrikoaren kontrako talkekin edota elektrokuzioekin.

**3. gaia:** Linea elektriko arriskutsuen titularrei kaltea prebenitu eta konpontzeko erantzukizuna eskatzeko prozedura edo protokoloa.

Lehen adierazi den moduan, 2018ko uztailaren 17an Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpena jakinarazi zitzaizkien enpresa hauei, elektronikoki: Espainiako Sare Elektrikoa, Iberdrola eta CIDE. Egia izan arren hiru enpresetako bakar batek ere ez duela jakinarazpen elektronikoa jaso, EHAAren argitaratuta

*jakinarazpen-izapidea bete dela uste dugu, eta, beraz, baita zuzenketa-proiektuak aurkezteko epea zenbatzen hasi beharko litzaiekeela ere.*

*Euskadin, linea gehienak Iberdrolarenak dira; hortaz, enpresa horrek dauka euskarrien zuzenketa pisu gehien. Hala ere, oraingoz nortasun ezezaguna duten lineen jabe partikularrak identifikatzeko lanak egitea aurreikusi dugu.*

#### Bestelako gogoetak

*Aurrekoari erreparatuta eta orain artean bildutako informazioarekin, ez dirudi hizpide dugun problematikak Euskal Autonomia Erkidegoan beste lurralde batzuetan argi eta garbi duen larritasuna duenik, askotariko bideetatik hauteman diren kasuak benetan urriak dira-eta. Horrenbestez, baliabide publikoak modu eraginkor eta proportzionatuagoan erabil daitezten, gure betebeharrak eta konpromisoak betetzeko orduan aurrera egiten jarraituko dugu, baina, gure testuinguru geografikoan behinik behin, lehentasuna ertaina dela uste dugu.*

*Nolanahi ere, adierazi beharra dago Euskadiren orografiarengatik eta batez ere zuhaitzez osaturiko landare-estalduragatik lurralde lau eta irekiagoetan baino zailagoa izan litekeela errege-dekretuan ezarritakoa betetzen ez duten euskarriak landan identifikatzea eta heriotza-kasuak hautematea. Hori dela-eta, landa-lanak garestiagoak dira, eta zailagoa da emaitzak eskuratzea».*

2018ko azaroaren amaierako txostenak, bada, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak 1432/2008 Errege Dekretuaren ondoriozko betebeharren harira egindako jarduketak azaltzen zituen. Zehazki, honako hauek aipatzen zituen: batetik, 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren bidez hegazti-faunarentzako babes-eremuak ezarri izana, eta, bestetik, 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenaren bidez 1432/2008 Errege Dekretuaren manuekin bat egiten ez duten goi-tentsioko linea elektrikoen eta lehentasunezko jarduketan inbentarioa egin izana.

Sail horrek balorazioan balioesten zuenez, Euskadiko hegazti-faunaren talka- eta elektrokuzio-arazoa, eskudun foru-erakundeek detektatutako kasu-kopurua dela-eta, ez da estatuko beste lurraldeetako bezain handia, hainbat bidetatik hautemandako kasuak benetan urriak izan baitziren. Emandako datuen arabera, kontuan hartutako aldi historiko guztian 100 bat ale topatu dituzte hilda Euskadin. Hala, Gipuzkoan (1986tik 2018ra) 52 hegazti topatu zituzten hilda; Araban (2009tik 2019ra) 48 hegazti, eta ez zuten Bizkaiko daturik. Edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoko orografiak eta landare-estaldurak lurralde lau eta irekiagoetan baino heriotza gutxiago detektatzea eragin dezaketela zioen.

- Arartekoak, halaber, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundietako eskudun foru-sailetara jo zuen, honako hauei buruzko informazioa eskatzeko: linea arriskutsuek hegazti-faunari eragiten dioten kaltea prebenitzeko eta konpontzeko erantzukizuna linea elektriko horien titularrei eskatzeari begirako prozeduraren edo protokoloaren inguruko balorazioa, hegaztien heriotza-tasari buruzko datuak, egindako salaketak eta ikuskapenak, espediente zehatzaileak eta ingurumen-arloko fiskaltzari bidalitako jarduketak.

**Bizkaiko Foru Aldundia.** 2018ko abenduaren 3an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak aipaturiko gaiari buruzko txosten bat bidali zion Arartekoari.

Hegaztien heriotzak eragiten dituzten gertakariei buruzko informazioari dagokionez, foru-sail horri atxikitako Zinegetika eta Arrantza Zerbitzuak egindako txostena bidali ziguten. Bertan, Bizkaiko Basafauna Suspertzeko Zentroaren datuak jasotzen ziren, 2017 eta 2018koak:

*«Zentro honek zaurituta dauden basafauna-aleei ematen die arreta, eta nekropsiak egiten dizkie bertara hilda iristen diren fauna-aleei.*

*Zentroak daukan informazioan oinarrituta, hona hemen linea elektrikoetan elektrokutatuta hil diren edo hil ahal izan diren hegaztien zerrenda (Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoa EMEK siglekin eman dugu):*

#### HEGAZTI-FAUNA ETA LINEA ELEKTRIKOAK 2017

<i>Sartu zen eguna</i>	<i>2017-11-30</i>
<i>Espeziea</i>	<i>Sai arrea (Gyos fulvus)</i>
<i>Katalogazioa</i>	<i>EMEK Interes berezikoa</i>
<i>Jatorria</i>	<i>lurreta</i>
<i>Kasu klinikoaren zk.</i>	<i>15162</i>
<i>Heriotzaren kausa</i>	<i>Elektrokuzio-susmoa</i>
<i>Sartu zen eguna</i>	<i>2017/11/22</i>
<i>Espeziea</i>	<i>Zapelatz arrunta (Buteo buteo)</i>
<i>Jatorria</i>	<i>Erandio</i>
<i>Kasu klinikoaren zk.</i>	<i>15157</i>
<i>Heriotzaren kausa</i>	<i>Elektrokuzioa</i>
<i>Sartu zen eguna</i>	<i>2017/11/22</i>
<i>Espeziea</i>	<i>Zapelatz arrunta (Buteo buteo)</i>
<i>Jatorria</i>	<i>Erandio</i>
<i>Kasu klinikoaren zk.</i>	<i>15156</i>
<i>Heriotzaren kausa</i>	<i>Elektrokuzioa</i>
<i>Sartu zen eguna</i>	<i>2017/10/3</i>
<i>Espeziea</i>	<i>Zapelatz arrunta (Buteo buteo)</i>
<i>Jatorria</i>	<i>Etxebarria</i>
<i>Kasu klinikoaren zk.</i>	<i>15053</i>
<i>Heriotzaren kausa</i>	<i>Elektrokuzioa</i>
<i>Sartu zen eguna</i>	<i>2017/09/16</i>
<i>Espeziea</i>	<i>Zapelatz arrunta (Buteo buteo)</i>
<i>Jatorria</i>	<i>Trapagaran</i>
<i>Kasu klinikoaren zk.</i>	<i>14998</i>
<i>Heriotzaren kausa</i>	<i>Elektrokuzio posiblea</i>



Sartu zen eguna 2017/08/30  
Espezia Belatz gorria (*Falco tinnunculus*)  
Jatorria Valle de Losa (Burgos)  
Kasu klinikoaren zk. 14732  
Heriotzaren kausa Elektrokuzio posiblea

Sartu zen eguna 2017/08/19  
Espezia Zapelatz arrunta (*Buteo buteo*)  
Jatorria Durango  
Kasu klinikoaren zk. 14704  
Heriotzaren kausa Elektrokuzioa

Sartu zen eguna 2017/07/3  
Espezia Urubi arrunta (*Strix aluco*)  
Jatorria Gorniz  
Kasu klinikoaren zk. 14455  
Heriotzaren kausa Elektrokuzioa

#### HEGAZTI-FAUNA ETA LINEA ELEKTRIKOAK 2018

Sartu zen eguna 2018/06/04  
Espezia Hontz handia (*Bubo bubo*)  
Katalogazioa EMEK. Bakana  
Jatorria Ortuella  
Kasu klinikoaren zk. 15520  
Heriotzaren kausa Elektrokuzioa

Sartu zen eguna 2018/02/27  
Espezia Sai arrea (*Gyrfalco fulvus*)  
Katalogazioa EMEK. Interes berezikoa  
Jatorria Gueñes  
Kasu klinikoaren zk. 15270  
Heriotzaren kausa Elektrokuzio posiblea

Jarraitzen duten prozedura edo protokoloaren datuei buruz, honako hau adierazi zuten:

- Ingurumen-salaketak. «Sail honi atxikiriko Lege Aholkularitza eta Arau Garapenerako Zerbitzuan dakigunez, salaketa bakarra jarri da. Datu hauen arabera, 2018ko ekainaren 4an aurkeztu zen, hontz handi bat elektrokutatatu ondoren:

"Salatutako gertaeren eguna: 2018ko ekainaren 4a  
Zerbitzuan sartu zen eguna: 2018ko irailaren 21a  
Salatutako gertaerak: Hontz handi bat elektrokutatuta hiltzea.  
Espezia Mehatxatuen EAEko Katalogoan, espezia bakantzat jotzen da.  
Gertaeren tokia: Ortuella. X koordenatuak: 496036; Y: 4795207"

Salaketa horren inguruan ez da espediente zehatzailerik abiatu, salaketaren arabera gertaera jazo zen tokia ez dagoelako sartuta 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren lurralde-eremuan (agindu hori Arartekoaren idazkian aipatzen da).

*Oro har, puntu honi eta hurrengoei dagokienez, adierazi beharra dago Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Ingurumen eta Hirigintza Salaren Fiskaltzak 2018ko ekainaren 15eko idazkiaren bidez (Gobernuaren 254/2016 espedientea) gaiari buruz emandako hainbat epairen txostenei eta doktrinari jarraitzen diela sail honek.*

*Txosten horren ganean egiten dugun interpretazioaren arabera, kexa-espediente honen xede diren kasuetan, gertaerak abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuaren ezarpen-eremuaren barruan gertatu badira abiaraz daiteke espediente zehatzailea eta/edo ingurumen-erantzukizuneko espedientea. Euskal Autonomia Erkidegoan, 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan zehazten dira eremuok».*

. Ikuskapen-aktak. «Ez dago ikuskapen-aktarik»

. Ingurumen-kalteak konpontzeko espedienteak. «Lege Aholkularitza eta Arau Garapenerako Zerbitzuak ez du bidali hizpide dugun gaiari buruzko espedienterik, ingurumen-kalteak konpontzeari dagokionez».

. Espediente zehatzaileak. «Adierazitako aldian, ez da espediente zehatzailerik abiatu».

. Delitu edo falta izan daitezkeen arau-hausteak. «Fiskaltzara ez da inolako ikuskapen-aktarik bidali. Ingurumen eta Hirigintza Salaren Fiskaltzak eskatuta, gaiari buruzko informazioa bidali da 2018ko azaroaren 15eko idazkiaren bidez».

Bizkaiko Foru Aldundiaren txostenean, 2017tik 2018ra bitartean hamar hegazti hil direla jartzen du; horietatik zortzi 2017an hil ziren, eta bi 2018an. Txostenaren arabera, ingurumen-erantzukizuneko espediente zehatzaile bat irekitzeko, 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan hegazti-faunarentzat ezartzen diren babes-eremuen barruan elektrokutatuta hil behar du hegazti batek.

**Bizkaiko lurralde historikoko datuak, 2019-2020.** Erakunde honek beranduago eskuratu ahal izan dituen datuen arabera, 2019aren eta 2020aren artean, Bizkaiko Basafauna Suspertzeko Zentroan 21 hegazti jaso dituzte, linea elektrikoaren kontra talka egin edo elektrokutatzeagatik hildakoak<sup>3</sup>.

**Gipuzkoako Foru Aldundia.** 2018ko abenduaren 8an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomiaren Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Sailak txosten bat bidali zion Arartekoari, honako hau adieraziz:

*«Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketako Zuzendaritzak kudeatzen du 1432/2008 Errege Dekretuaren ezarpena, hiru lurraldeetako foru-aldundiekin koordinatuta, zuzendaritza horren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpena bezalaxe. Beraz, Eusko Jaurlaritzak eman beharko luke informazio hori.*

*Gipuzkoan, hegazti gutxi hiltzen dira elektrokutatuta. Basozainek egiten dute jarraipena, elektrokutatuta hildako hegaztien berri izatean haiek berrikusten dituztelako kasuak eta sail honen Basafauna Suspertzeko Zentrora (Arrano Etxea) sartzen diren animalien*

<sup>3</sup> 2019-2020 aldian, Bizkaian 21 aleri egin zaie kalte: 9 zapelatz arrunti, 4 erroiri, 3 sai arreri, 2 beleri, zikoina arrunt bati, gabirai arrunt bati eta belatz gorri bati.

*erregistroa begiratzen dutelako.*

*Linea elektrikoekin zerikusia izanda Basafauna Suspertzeko Zentrora iristen diren aleek talka egiteagatiko lesioak izaten dituzte, eta, zentroak funtzionamenduan daramatzen urteetan (1986tik), guztira 42 hegazti sartu dira arrazoi horrengatik.*

*Basozainek Basafauna eta Basaflora Zerbitzuan jasotako informazioari dagokionez, hona hemen Gipuzkoan 2014ra arte linea elektrikoetan elektrokutatutako hegaztien datuak:*

*Bi zapelatz arrunt (Buteo buteo) Oiartzunen. X: 593542; Y: 4795384*

*Hontz handi bat (Bubo bubo) Ataunen. X: 567507; Y: 4763057*

*Hontz handi bat (Bubo bubo) Ataunen. X: 567826; Y: 4758061*

*Bi zikoina zuri (Ciconia ciconia) Villabonan. X: 576017; Y: 4781627*

*Hontz handi bat (Bubo bubo) Hernanin. X: 582563; Y: 4790717*

*Bi zikoina zuri (Ciconia ciconia) Orendainen. X: 572472; Y: 4771164*

*Bi zapelatz arrunt (Buteo buteo) Orendainen. X: 572549; Y: 4771583*

*Sai arre bat (Gyps fulvus) Oñatin. X: 547306; Y: 476997*

*Azken urteetan, zikoina zurien (Ciconia ciconia) bi elektrokuzio-gertaera izan dira Olaberrian. Lehenengoa 2017ko abuztuaren 1ean gertatu zen, Lazkano-Ataun linearen 702. dorre elektrikoan, eta espezie horretako ale bati eragin zion. Bigarrena 2018ko abuztuaren 2an gertatu zen, eta 9 zikoina zuri agertu ziren Lazkano-Ataun linearen hiru dorrearen azpian: 5 ale 702. dorrearen azpian; 2 ale 175. dorrearen azpian, eta beste 2 ale 136. dorrearen azpian.*

*Olaberrian 2017an elektrokutatuta hildako zikoina zuriaren kasuan, ez zen espediente zehatzailerik ireki, eta Fiskaltzari ez zitzaion horren berri eman, gertaera isolatutzat jo zelako.*

*Gipuzkoan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Ingurumen eta Hirigintza Salako fiskalak Gipuzkoako Foru Aldundiari 2018ko ekainean bidalitako ofizioan jasotako irizpidea aplikatzen da. Ofizio horretan, «sei ebazpen judizialen kopia dago, non ezetsi egiten diren hegaztiak linea elektrikoetan izandako gertaeren berri izan eta administrazio-espedientea ireki ondoren Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoko administrazioak ezarritako zigorren kontra administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren organoetan jarritako errekursoak», zentzu honetan: «epai horiek ordenamendu juridikoaren interpretazio bat babesten dute, zeinaren arabera ezinbestekoa den linea elektrikoekin zerikusia daukaten hegaztien heriotza- eta lesio-kasuetan administrazio-bideko zigor-ezarpena baliatzea».*

*Irizpide horri jarraikiz, espediente zehatzaile bat ireki da 2018ko abuztuaren 2an Olaberrian jazotako heriotzarengatik.*

*Gipuzkoako Fiskaltza Probintzialari bi gertaerei buruzko informazioa bidali zaio, Ingurumen Fiskaltzak hala eskatuta, 34/2018 Ikerketa Eginbideen barruan.*

*Bestalde, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Ingurumen eta Hirigintza Salako fiskalak eskatuta, Basafauna eta Basaflora Zerbitzuko zaindari nagusiarekin harremanetan jartzeko datuak bidali dira, bera baita Gipuzkoako ordezkaria Basafaunaren eta Linea Elektrikoen Sarean (Ingurumen Fiskaltzaren Ingurumen eta Hirigintza Unitateak koordinatzen du sare hori)».*

*Gipuzkoako Foru Aldundiaren txostenean, elektrokutatuta hegazti gutxi hiltzen*

direla balioesten zen. Zehazki, Basafauna Suspertzeko Zentroan 1986tik talken ondorioz zauritutako 42 hegazti jaso direla eta 2014ra arte elektrokutatutako 12 hegaztiren kasuak izan dituztela adierazten zen. Halaber, 2017an eta 2018an Olaberriako bi gertakarietan 10 zikoina zuri hil zirela esaten zen. Bigarren gertakarian, 9 zikoina elektrokutatuta hil ziren horretan, Ingurumen Fiskaltzak igorritako irizpidea aplikatuta, euskarriaren enpresa titularren kontra espediente zehatzailea irekitzea erabaki zen, eta Fiskaltzak ikertzeko izapideak zabaldu ziren.

**Gipuzkoako lurralde historikoko datuak, 2018-2019.** Erakunde honek gero jaso ahal izan dituen datuen arabera, Gipuzkoako goi-tentsioko aireko lineekin talka eginda edo elektrokutatuta hil edo larri zauritu diren hegaztien kopurua honako hau izan da: 2018an 11, eta 2019an 8<sup>4</sup>.

**Arabako Foru Aldundia.** 2019ko ekainaren 5ean, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailaren barruko Natura Ondarearen Zerbitzuaren txosten bat jaso zuen Arartekoak, Arabako lurralde historikoan izandako elektrokuzio-gertaeren kudeaketari buruzkoa. Honako hau zioen txostenak:

*«Beste ezeren aurretik, Natura Ondarearen Zerbitzuak Europaren finantzaketa izan duten (eta duten) LIFE proiektu bukatuei (ez daude indarrean) eta martxan daudenei (indarrean daude) buruz informatu nahi du, Arabako Foru Aldundiak horietan parte hartu baitu eta parte hartzen jarraitzen baitu, bazkide gisa. Izan ere, bi proiektuen ekintza nagusietako bat linea elektrikoaren konponketa denez, proiektuok eragin zuzena eduki dute eta daukate egin dizkiguzuen galderen erantzunetan. Hain zuzen ere, LIFE BONELLI (LIFE12NAT/ES/000701) eta AQUILA a-LIFE (LIFE16NAT/ES/000235) proiektuez ari gara:*

*LIFE BONELLI (2013-2017):*

*Aztore-arranoaren (Hierareetus fasciatus edo Aquila fasciata) populazioak lehengoratzeko da proiektu honen xedea, eta, horretarako, Penintsula Iberikoan eta Balear Irlatan lokalizatutako populazioetan aztore-arranoak berreskuratzeko hainbat programa erabiliko dira.*

*Xedea lortzeko, hainbat helburu abiarazi beharko dira; hala nola:*

- *Talken eta elektrokuzioaren kopurua murriztea arazo hori faktore mugatzailea den tokietan nahiz identifikatzen diren eremu berrietan.*
- *Habik egiteko toki berrietan habitat onuragarriak sortzea, arriskuak eta eragozpenak kenduta, denboran aldaketa handiak gertatzea prebenituta eta espezie harrapakinak mantendu eta hobetuta.*
- *Bikote ugaltzaileen nazioarteko stocka itxian edukitzea, baliabideak optimizatzeko eta aldakortasun genetikoari eusteko.*

*AQUILA a-LIFE (2017-2022)*

*AQUILA a-LIFE proiektuak, halaber, mendebaldeko Mediterraneoan aztore-arranoaren hedapena areagotzen eta espezie horren populazio-joera erregresiboari bira ematen lagundu nahi du, espezie horren garai bateko ekosistemak lehengoratzeko aldera.*

<sup>4</sup> 2018-2019 aldian, 19 aleri egin zaie kalte: 11 zikoina arrunti, 2 zapelatz arrunti, 2 sai arreri, urubi arrunt bati, hontz zuri bati, kaio hankahori bati eta miru gorri bati.

*AQUILA a-LIFE proiektuaren beste lan-ildo batean, aztore-arranoak gaur egun dauzkan mehatxu nagusiak jorratuko dira, eta arreta berezia jarriko zaie elektrokuzioen prebentzioari eta murrizketari, sektore giltzarri batzuekin batera lan eginez; hala nola, konpainia elektrikoekin, toki-administrazioekin eta gaian adituak direnekin.*

*Aztore-arranoak beste espezie harrapari batzuekin partekatzen dituen arazoak (batez ere, elektrokuzioa), espezie horiek ere (besteak beste, eguzki-arrano iberikoak, arrano beltzak eta arrano sugezaleak) onura aterako diete proiektu honen ekintzei. Horri buruz, proiektuaren bigarren xedea aipatu behar da: «Aztore-arranoak eta beste hegazti batzuek haien banaketa-eremu naturalean, eremu babestuen barruan zein horietatik kanpo, elektrokutatuta hiltzeko duten arriskua murriztea».*

*Honako hauek dira Arartekoaren galderei emandako erantzunak:*

***Natura Ondarearen Zerbitzuak 1432/2008 Errege Dekretua benetan betetzea sustatzeko xedez eta Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean jasotzen diren linea elektrikoak konpontzea bermatzeko asmoz abiatu dituen neurrien egoera.***

*Aipaturiko AQUILA a-LIFE proiektuaren esparruan, Arabako Foru Aldundia Iberdrola Distribución SAUko ordezkariekin elkartu zen 2018ko abenduaren 12an, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean finkatutako lineen lehenespena adosteko xedez, beste kontu batzuek gain. Zentzu horretan, Natura Ondarearen Zerbitzuak Iberdrola DESAUren gutxienez 4 instalazio zeuzkan detektatuta Kanpezu inguruan, hegaztientzako elektrokuzio-arrisku handia zutenak. Ez dira aldizkako euskarriak: arautegi elektroteknikoarekin (1432/2008 Errege Dekretua) bat egiten ez duten instalazio zaharkituak dira, hegaztientzat oso arriskutsuak diren eraikuntza-elementuak dauzkatenak: zubi lasaiak armatuaren goiko aldearen gaineratik, isolatzaile zurrunak, elektrobalbulak eta ebakigailuak nagusi eta abar. Honako hauek dira haien ezaugarri teknikoengatik eta hacking-eremutik hurbil egoteagatik Arabako mendietan aztore-arranoarentzat arrisku handiagoa duten eta zerbitzu honek konpon daitezkeen lehenetsi nahi dituen lau instalazioak:*

- 13,2 Kv-ko banaketa-linea, Zambrantatik Santa Cruz del Fierroarakoa.*
- 13,2 Kv-ko banaketa-linea, Maeztutik Egiletarakoa.*
- 13,2 Kv-ko banaketa-linea, Antoñanatik Bernedorakoa (Durruma Kanpezutik Angostinarako tartea).*
- 13,2 Kv-ko banaketa-linea, Bernedotik Urizaharrerakoa (Navarretetik Lagranerako tartea).*

*Era berean, IBERDROLA DESAU ALETEO enpresa proiektuaren esparruan egiten ari den zuzenketa jarraipena egite aldera, urte bakoitzaren hasieran informazio xehea bidaltzea eskatu zaio.*

***Arabako Foru Aldundiaren Natura Ondarearen Zerbitzuak hegaztiak behin eta berriro elektrokutatzen dituzten linea elektriko arriskutsuak konpontzea eskatzeko jarraitzen duen prozedura edo protokoloa (ingurumen-salaketen kopurua, ikuskapen-akten kopurua, ingurumen-kalteak konpontzeko espedienteen kopurua, espediente zehatzaileen kopurua eta delitua izan daitezkeen arau-hausteen kopurua).***

*Arabako Foru Aldundiak 2017tik egiten ditu linea elektrikoak konpontzeko errekerimendu-espeditenteak, horietako batean elektrokuzio-gertaeraren bat jazotzen duenean. Errekerimendu horrek, zeina Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 36/2007 Legearen 3.2. artikulua aplikatuta bidaltzen den, honako protokolo hau jarraitzen du:*

*1. Gorpua altxatzen da (basozainak edo ingurumen-agentek idatzitako txostena), eta Martiodako Fauna Suspertzeko Zentrora eramaten.*

*2. Martiodako Fauna Suspertzeko Zentroan nekropsiaren txostena idazten da.*

*3. Natura Ondarearen Zerbitzuak euskarri arriskutsuak konpontzeko errekerimendu-gutuna bidaltzen dio linearen/euskarriaren titularrari.*

*4. Idazkia jakinarazi eta hilabeteko epearen barruan, euskarriaren titularrak adierazitako xedearekin hartuko dituen neurri zuzentzaileen proposamen irmoa jakinarazi beharko dio Natura Ondarearen Zerbitzuari, bai eta neurriok betearazteko aurreikusi duen epea bidali ere, behar bezala justifikatuta.*

*5. Proposamen horri oniritzia emango zaio edo, hala badagokio, baldintzaren bat proposatuko zaio.*

*6. Aurkeztutako proposamenak oniritzia jasotzen duenean, euskarriaren titularrari horren berri emango zaio, eta nahitaez bete beharreko exekuzio-epea finkatuko da.*

*7. Neurriak garaiz eta behar bezala bete ondoren, euskarriaren titularrak gaien aditua den teknikari batek idatzitako txosten tekniko industrial bat bidali beharko dio zerbitzu honi. Txosten horrekin batera, nahitaez, argazki-erreportaje bat erantsi beharko da, eskatutako neurriak egin direla eta jarduketa horiek 1432/2008 Errege Dekretuan ezarritako irizpideekin bat egiten dutela egiaztatzeko xedez.*

*Ingurumen-salaketen kopuruari, ikuskapen-akten kopuruari, ingurumen-kalteak konpontzeko espeditenteen kopuruari, espeditente zehatzaileen kopuruari eta delitua izan daitezkeen arau-hausteen kopuruari dagokienez, honako hauek dira datuak:*

- o ingurumen-salaketen kopurua: 0*
- o ikuskapen-akten kopurua: 18 akta.*
- o ingurumen-kalteak konpontzeko espeditenteen kopurua: 0*
- o espeditente zehatzaileen kopurua: 0*
- o delitua izan daitezkeen arau-hausteen kopurua: 0*

*Era berean, orain arte 12 errekerimendu-txosten izapidetu dira, eta horietatik 5 behar bezala amaitu dira, zegozkien konponketak eginda. Gainerako 7 errekerimenduak izapidetzen daude, enpresa elektrikoak konponketa-txostena egiteko zain.*

Arabako Foru Aldundiaren txostenak 2018ko ekainaren 18ko Ebazpeneko betebeharren barruan sartuta dauden eta babes bereziko espezieentzat (adibidez, aztore-arranoarentzat) arrisku handia dakarten goi-tentsioko zenbait linea egokitzea sustatzeko egin diren jarduketak aipatzen zituen. Arabako Foru Aldundiak elektrokutatuta hildako hegazti baten berri duenean jarraitzen duen prozeduraren barruan, euskarri hori Ingurumen Erantzukizunari buruzko 26/2007 Legearen arabera eska daitezkeen manu teknikoetara egokitzeko errekerimendua

bidaltzen zaio euskarriaren titularrari.

**Arabako lurralde historikoko datuak, 2017-2020.** Martiodako suspertze-zentroaren urteko memorietan jasota dauden datuen arabera, 2017an lineen kontra elektrokutatu edo talka egin ostean hildako 17 hegazti jaso ziren Arabako lurralde historikoan<sup>5</sup>. 2018an, 11 kasu izan ziren elektrokuzio posible baten ondoriozkoak, eta 10 kableen edo posteen kontra talka egitearen ondoriozkoak<sup>6</sup>. 2019an, 16 hegazti hil ziren elektrokuzio posible batengatik, eta bakarra talka posible batengatik<sup>7</sup>. 2020ko lehenengo lau hilabeteetan, zentroak Araban elektrokutatuta hil ahal izan diren 8 hegazti jaso ditu, eta talka posible batengatik hildako bat<sup>8</sup>.

### 3. Araban hegazti bat elektrokutatzeagatiko salaketa.

Arartekoak kontu honi buruzko erreklamazio bat jaso zuen gerora, elkarte ekologista batek abiatuta. Bertan, Artatza Forondako erdi-tentsioko linea baten inguruan hegazti bat (zapelatz arrunt bat) hilda agertu ondoren SOS Deiak 112 zerbitzuaren bidez 2019ko irailaren 23an jarritako salaketaren ostean jarraitutako administrazio-izapidea azaltzen zen. Kexagileak kontatu zuenez, SOS Deiak 112 zerbitzura deitu ondoren, ez zuen gertakariari buruzko informaziorik jaso.

2019ko azaroaren 27an, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak hegazti horren elektrokuzio-gertaerari buruzko informazioa eman zion Arartekoari, honela:

*«Arartekoak egindako kontsultari dagokionez, Arabako Foru Aldundiaren Natura Ondarearen Zerbitzuak honako prozedura hau jarraitu zuen:*

*A). Gorpu-altxaketa eta nekropsia:*

*2019ko irailaren 23an, EURIA animaliak jasotzeko zerbitzuak zapelatz arrunt (Buteo buteo) baten gorpua bidali zuen Arabako Foru Aldundiaren Basafauna Suspertzeko Zentrora. Animalia Forondatik zetorren, eta linea elektriko baten azpian topatu zuten, koordinatu hauetan: X: 522727 - Y:4749212. Martiodako Basafauna Suspertzeko Zentroak nekropsia egin ondoren ondorioztatu zenez, hegaztia elektrokuzioz hil zen.*

*8).- Elektrokuzioagatiko espedientea:*

<sup>5</sup> 2017an, azpiegiturarekin elektrokutatuta edo talka eginda hildako 17 hegazti jaso dira: 12 sai arre, 2 zikoina zuri, bele handi 1 eta 3 belatxiki mendebaldar. 2017ko urteko memoria. Martiodako Fauna Suspertzeko Zentroaren kudeaketa.

<sup>6</sup> 2018an, 21 ale jaso ziren. Elektrokuzio-kasuak sei hegaztirenak dira (lau sai arre eta bi belatz gorri). Kasu horiei beste lau gaineratu ahal zaizkie, animalien gorpuk lineen azpian topatu direnez elektrokutatuta hil direla pentsa baitaiteke, nahiz eta nekropsia eztabaida ezina izan ez. (Sai arre bat, belatz gorri bat, hontz zuri bat eta zapelatz arrunt bat). 2018ko urteko memoria. Martiodako [Fauna Suspertzeko Zentroaren kudeaketa](#).

<sup>7</sup> 2019an, 17 ale jaso ziren: arrano txiki bat, miru gorri bat, sei sai arre, zikoina zuri bat, bele bat, miru beltz bat, zapelatz bat, urubi bat eta koartzatxo bat (talka posible batengatik).

<sup>8</sup> [2020an](#), 9 ale jaso dira: bi zapelatz, bi sai arre eta lau arabazozo arrunt. Koartzatxo bat talka posible batengatik.

*Martiodako Basafauna Suspertzeko Zentroak elektrokuzio-gertaeraren berri eman zion Natura Ondarearen Zerbitzuari. Zerbitzu horrek errekerimendu-espeditentea ireki zion linearen titularrari, honako hau egiaztatuz:*

- *Euskarria Eusko Jaurlaritzak abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuko zehaztapenei jarraikiz zehaztutako babes-eremutik kanpo dago (1432/2008 Errege Dekretuaren bidez, hegazti-faunak goi-tentsioko linea elektrikoen kontra talka ez egiteko eta ez elektrokutatzeko neurriak ezartzen dira).*

- *Ez da errepikapenik egon: Guk dakigula, azterketaren xede diren euskarrian eta linean ez da beste hegaztirik elektrokutatu.*

*Gertakarian nahitasunik egon ez dela balioetsi da.*

*C.)- Espedientearen izapidea:*

*Errekerimenduaren xede diren euskarrian eta linean aurretik elektrokuzio-gertakaririk egon ezenez eta, beraz, espediente zehatzailea irekiaraz dezakeen errepikapenik egon ezenez, elektrokuzio-gertaera eragin zuen euskarria konpontzeko errekerimendu-gutuna bakarrik izapidetzea erabaki zen.*

*Urriaren 3an, Natura Ondarearen Zerbitzuak errekerimendu-gutun bat bidali zion linearen titularrari. Bertan, jakinarazpenaren egunetik zenbatzen hasita, hilabeteko epea eman zion hegazti-fauna babesteko hartuko zituen neurri zuzentzaileen proposamen irmo bat aurkezteko.*

*Halaber, linearen titularrari gogorarazi egin zitzaion, Ingurumen Erantzukizunari buruzko 36/2007 Legearen 22. artikuluan («Ingurumen-kaltea prebenitu, saihestu eta konpontzeko betebeharrak ez betetzea») xedatzen denarekin bat eginez, eskudun agintaritzak Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen VI. kapituluaren aurreikusten den ingurumen-erantzukizuneko prozedura hasi ahalko duela ingurumen-kaltea prebenitu, saihestu eta konpontzeko neurriak hartzeko betebeharrak guztiz edo zati batean betetzen ez badira, ez-betetze horren ondorioz egokitzen den araubide zehatzailea aplikatzeko aukera bazter utzi gabe.*

*D.)- Informazio-faltari buruz.*

*Martiodako Basafauna Suspertzeko Zentrora sartutako animalia baten egoerari edo bilakaerari buruzko informazioa nahi duenak Natura Ondarearen Zerbitzu honi eskatu besterik ez du egin behar, foru-aldundiak horretarako prestatutako bideren bat erabiliz. Hautazkoa eta baliozkoa da beste erakunde batera jotzea, araudiak ezartzen duen administrazio bakarraren printzipioarengatik».*

Informazio horretan, Arabako Foru Aldundiaren Natura Ondarearen Zerbitzuak elektrokuzio-gertaeraren harira egindako esku-hartzeaz hitz egiten zen. Zerbitzuak espediente bat ireki zion linearen titularrari, linea 1432/2008 Errege Dekretura egokitzea eskatzeko, nahiz eta euskarria 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenaren inbentarioan zehaztutako babes-eremutik kanpo egon. Era berean, eskatutako neurriak bete ezean eskudun agintaritzak ingurumen-erantzukizuneko prozedura abia zezakeela gogorarazi zion, ez-betetze horren ondorioz egokitzen den araubide zehatzailea aplikatzeko aukera bazter utzi gabe. Edonola ere, errekerimenduaren



xede diren linean eta euskarrian aurretik elektrokuzio-gertakaririk egon ez zenez, espediente zehatzaile bat irekitzea egokia ez zela balioetsi zuen Natura Ondarearen Zerbitzuak.

#### **4. Gomendio orokorraren proposamena.**

Aurrekariak ikusita, eta kexaren planteamendua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak nahiz Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako eskudun hiru sailek bere garaian bidalitako informazioa eta gaiari buruzko gainerako informazio eskuragarria aztertu ondoren, Arartekoari interesgarria iruditu zaio gaiari buruzko gomendio orokorraren proposamena egitea.

Aurrekarietan, erreklamazio batzuk aipatzen dira, eskudun euskal administrazioek hegazti-fauna linea elektrikoen kontra ez elektrokutatzeko eta talka ez egiteko ordenamendu juridikoan dauden neurriak Euskadin behar bezala aplikatzea susta dezala eskatzen dutenak. Bada, gomendio orokor honek erreklamazio horiei erantzutea du xede. Jakitun izan arren Euskadin modu horretara hiltzen diren hegaztien kopurua beste autonomia-erkidego batzuetakoa baino askoz txikiagoa dela, heriotza-fenomeno horren gaineko ezagutza hobetzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan elektrokutatzen eta talka egiten duten hegaztien kopurua ahalik eta gehien detekta dadin sustatzea garrantzitsua dela planteatzen dute erreklamazioek. Horri begira, detektatzen diren kasuetan administrazioak esku hartzeko protokolo bat edukitzea proposatzen dute, linea elektrikoen arduradunei eragindako ingurumen-kalte behar bezala konpontzea eskatu ahal izan dakien, egokituta ez dauden lineak eta euskarriak aldatuz. Elkarrekin kexagile batzuek, halaber, haiek salatutako elektrokuzio-gertakarien ondoriozko kontrol-jarduketan eta salaketan berri edukitzeko eta horietan parte hartzeko garrantzia planteatu dute.

Gomendio orokor hau egiteko xedez, aurrekarietan aipaturiko informazioarekin batera, Arartekoak 2019an bilerak egin zituen fiskaltza probintzialen ingurumen-sekzioetako ordezkariekin, Ertzaintzaren Ikerketa Kriminal eta Polizia Judizialeko Sekzio Nagusiaren Ingurumen eta Hirigintza Atalarekin eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako baso-agenteen elkarrekin.

Hala, ingurumen-kontrola hobetze aldera erakunde honek egin ditzakeen proposamenen baitan sartzen da Arartekoaren gomendio orokor hau. Neurri horien artean dago ingurumena ikuskatzeko eskumena duten administrazioen arteko komunikazio-protokoloen eta -bitartekoen sustapena gauzatzea, eta hori guztia arau-hausteak (administratiboak, legez kontrakoak edo penalak) izan daitezkeen jarduketak edo ez-betetzeak behar bezala hautemateko, ikertzeko eta kalifikatzeko.

\* \* \* \*

Hizpide dugun problematikaren balorazio juridiko zuzena egite aldera, hegazti basatiak babesteko lege-esparrua eta energia elektrikoa garraiatu eta banatzeko instalazioei eska dakizkiekeen betebeharrak aztertuko dira ebazpen honen hurrengo ataletan. Alde batetik, hegazti basatiak linea elektrikoen aurrean babesteko nazioarteko, Europako, Estatuko eta Euskadiko eremua jorratuko da. Bestetik, hegazti-faunaren babesa kontrolatzeko eska daitekeen funtzio publikoari buruzko balorazioa jasoko da, hegaztien elektrokuzio- eta talka-gertakarien ingurumen-kontrolerako prebentzio-neurriak eta tresnak, ingurumena ikuskatu eta kontrolatzeko neurriak, araudia urratzeagatik neurri zehatzaileak eta ingurumen-kalte prebenitu edo konpontzeko neurriak barne hartuta. Azkenik, espezie babestuei kalte egiteagatik ingurumenaren kontra egiten diren delituen ondoriozko zigor-erantzukizuna eta Ingurumen Fiskaltzak heriotza-tasa prebenitzeko eta kontrolatzeko orduan egiten duen lana aipatuko dira.

## **5. Hegaztiak linea elektrikoen aurrean babesteko nazioarteko eta Europako esparrua.**

### **5.1. Animalia Basatien Espezie Migratzaileak Kontserbatzeko Hitzarmena (Bonnekoko Hitzarmena).**

Lehenik eta behin, [Animalia Basatien Espezie Migratzaileak Kontserbatzeko Hitzarmena](#) aipatu behar da. Bonnen egin zen, 1970eko ekainaren 23an. Booneko Hitzarmena [Nazio Batuen Ingurumen Programaren](#) barruan sustatu zen, eta Espainiak 1985eko urtarrilaren 22an berretsi zuen. Bada, fauna migratzailea bere banaketa-eremu natural guztian (espezie migratzaile batek ohiko migrazio-ibilbidean habititzen, sarri zapaltzen edo hegaldatzen duen azalera) kontserbatzea du helburu, haien habitata babestu eta kontserbatzeko neurriak hartuz, eta kontserbazio-egoera kaskarra duten espezieei ematen die arreta. Bonnekoko Hitzarmenak arriskuan dauden espezie migratzaileak (1. eranskina)<sup>9</sup> eta duten kontserbazio-egoera dela-eta akordioen xede izan behar duten espezie migratzaileak (2. eranskina)<sup>10</sup> hartzen ditu kontuan.

Bonnekoko Hitzarmenak hegazti migratzaileen babesaren eta azpiegitura elektrikoen artean sorturiko gatazkak kudeatzeko akordioak sustatu ditu. Horixe da hegazti migratzaileen elektrokuzioari buruzko 7.4. Ebazpenaren<sup>11</sup> kasua, adibidez. Bertan, erdi-tentsioko lineek hegazti migratzaileei dakarkien elektrokuzio-arriskua murriztea eskatzen zaie aldeei, eta epe luzera ezerezean utz dezatela arrisku hori, lineak planifikatu bitartean nahiz baimena emateko orduan neurriak hartuz.

<sup>9</sup> [I. eranskinaren taxoiak](#), Espainia banaketa-eremuko estatutzat dutenak.

<sup>10</sup> [II. eranskinaren taxoiak](#), Espainia banaketa-eremuko estatutzat dutenak.

<sup>11</sup> [Hegazti migratzaileen elektrokuzioari buruzko 7.4. Ebazpena](#), Aldeen Biltzarrak zazpigarren bileran onetsia (Bonn, 2002ko irailaren 18tik 24ra).

Ebazpen horretan, neurrien katalogo<sup>12</sup> bat aplikatzea proposatzen da, eta, bertan, prebentzio-printzipioa jasotzen da, hegazti migratzaileak tentsiodun elementu arriskutsuetan bermatzea saihesteari begirakoa. Halaber, sistema elektrikoaren operadoreen, kontserbaziorako antolakundeen eta eskudun agintaritzen arteko lankidetzarako deia egiten da.

Linea elektrikoetara eta hegazti migratzaileei buruzko 10.11. Ebazpenean<sup>13</sup>, berriz, linea elektrikoek hegazti-populazioetan duten inpaktua nazio-mailan monitorizatu eta aldizka ebaluatzea proposatzen zaie parte hartzen duten estatuei, bai eta linea elektrikoek hegazti-populazioetan duten inpaktua murrizteko hartzen dituzten arintze-neurrien eraginkortasuna ebaluatu dezatela ere.

**Hegazti urtar migratzaile afroeuroasiarrak kontserbatzeko akordioa (AEWA).** Bonnekoko Hitzarmenaren babespean, hegazti urtar migratzaile afroeuroasiarrak kontserbatzeko akordioa hitzartu zuten Hagan, 1996ko abuztuaren 15ean (AEWA). Espainiak 1999an berretsi zuen akordio hori<sup>14</sup>. AEWAk babes-eremu bat ezartzen du, hegazti urtar migratzaileak kontserbatzeko ekintza-plan baten bidez, eta arreta berezia ematen die arriskuan dauden espezieei nahiz kontserbazio-egoera txarrean daudenei.

Neurri horien barruan, AEWAk 5.11. Ebazpena onetsi du, linea elektrikoetara eta hegazti urtar migratzaileei buruzkoa<sup>15</sup>. Bertan, zenbait kontserbazio-jarraibide aplikatzea sustatzen da, sare elektrikoek hegazti migratzaileengan duten inpaktua saihesteari edo arintzeari begirakoak<sup>16</sup>. Jarraibide horiek hainbat ikuspegi tekniko eta legegile ematen dituzte, baita iradokizunak ere, prebentzio-neurrien eraginkortasuna ebaluatu eta monitorizatzeko. AEWAk, era berean, hegaztien babesari eta linea elektrikoetara buruzko Budapesteko Adierazpena eman zuen 2011n, non jarraipena egiteko ekintza-programa bat elkarrekin garatzea eskatzen

<sup>12</sup> [“Suggested Practices for Bird Protection on Power Lines”](#), UNEP/CMS/Inf.7.21. Dokumentua, Alemaniako Natura Kontserbatzeko Elkarteara (NABU), hegaztiak linea elektrikoaren aurrean babesteko jarduerari buruzkoa.

<sup>13</sup> [10.11. Ebazpena](#), linea elektrikoetara eta hegazti migratzaileei buruzkoa, Aldeen Biltzarrak hamargarren bileran onetsia (Bergen, 2011ko azaroaren 20tik 25era).

<sup>14</sup> [Hegazti urtar migratzaile afroeuroasiarrak kontserbatzeko akordioa \(Haga, 1996ko abuztuaren 15a\) berresteko TRESNA.](#)

<sup>15</sup> [Resolution 5.11, Power lines and migratory waterbirds](#)

<sup>16</sup> [“Guidelines on How to Avoid or Mitigate the Impact of Electricity Power Grids on Migratory Birds in the African-Eurasian Region”](#) (document AEWA/MOP 5.37) Ildoek funtsezko zazpi urrats hauek gomendatzen dituzte:

1. urratsa: Sare elektrikoaren eta haien ingurumen-ebaluazioaren epe luzerako plangintza estrategikoa garatu eta babestea.
2. urratsa: Interesdun alde guztien (enpresak, kontserbazioaren aldeko elkarrekin, gobernuo antolakundeak) arteko lankidetzaren garatu eta babestea.
3. urratsa: Babestutako eremuei eta hegazti-espezie sentikorren presentziari buruzko datu-baseak garatzea, espezie horien hegaldi-ibilbideak barne hartuta.
4. urratsa: Linea elektriko berriak hegaztientzat funtsezkoak diren tokietatik urrun tratatzea.
5. urratsa: Kontserbazio-eremuen eta espezieen lehentasunezko zerrendak egitea.
6. urratsa: Linea elektrikoaren tarte arazoak arintzea, erabil daitezkeen teknika onenak baliatuz.
7. urratsa: Arintze-neurrien eraginkortasuna kontrolatu eta elektrokuzio- nahiz talka-gertakarien jarraipena egiteko ebaluazio-programak garatzea.

zaien alde guztiei, Europako kontinente osoan linea elektrikoen erruz hildako hegaztien kopuruak benetan egin dezan behera<sup>17</sup>.

**Hegazti harrapari migratzaileen kontserbazioari buruzko memoranduma (Raptors MOU).** Bonneko Hitzarmenak, bestalde, tresna hau eman du: Afrika eta Eurasiako hegazti harrapari migratzaileen kontserbazioari buruzko ulermen-memoranduma (Raptors MOU), Espainiak 2015eko maiatzaren 4an sinatua<sup>18</sup>. Tresna horretan, ekintza-plan<sup>19</sup> bat jasotzen da, zeinaren arabera linea elektrikoak hegazti harrapariarentzako mehatxu nagusietako bat diren. Ondorioz, inpaktu negatibo hori murrizteko lehentasunezko ekintza bat formulatzen da bertan. Planaren xedea honako hau da: espezie horiek elektrokutatuta edo talka eginda hiltzearen inpaktu negatiboa murrizteko neurri legegileak sustatzea. Gaur egungo linea elektriko arriskutsuenak aldatzea bermatzeko neurri posible guztiak hartzea proposatzen du, hegazti harrapariak elektrokutatzea saiheste aldera.

## 5.2. Europako basabizitza eta natura-ingurunea kontserbatzeko hitzarmena (Bernako Hitzarmena).

Bestalde, [Europako Kontseiluak](#) beste tresna garrantzitsu bat sustatu du: Bernako Hitzarmena, 1979ko irailaren 19koa, Europako basabizitza eta natura-ingurunea kontserbatzeko buruzkoa<sup>20</sup>. Hitzarmenak Europako basabizitza eta bertako habitat naturalak kontserbatzea bermatzeko xedea dauka, eta arreta berezia ematen die galzoriko espezieei eta espezie zaugarriari, espezie migratzaileak barne hartuta. Horri begira, kontserbaziorako politika nazionalak ezartzeko eta politika horiek plangintza-, garapen- eta ingurumen-politika nazionaletan txertatzeko konpromisoa hartu dute estatu sinatzaileek<sup>21</sup>. Halaber, espezieak eta haien habitatak kontserbatzeko premiaren inguruko heziketa eta informazio-hedapena sustatu behar dituzte. Zehazki, habitatak babestu eta espezieak kontserbatzeko neurri legegileak edo arauzko neurriak eskatzen dira. 2. artikulua xedatzen duenez, estatu sinatzaileek beharrezko kontserbazio-neurriak hartu behar dituzte, basafaunako populazioa «*zehazki eskakizun ekologiko, zientifiko eta kulturaleri*

<sup>17</sup> [Budapesteko Adierazpenaren harira, hegaztien kontserbazioari buruzko txostenak egin zituen aditu-talde batek](#). Bada, 2013ko maiatzaren 31ko txostenak honako hau nabarmentzen zuen Espainiatik: hegaztien segurtasunaren eta linea elektrikoen inguruko aditu-talde bat sortu da, hegaztientzat arriskutsuak diren linea elektrikoak egokitzeko eta linea elektriko berriak irizpide tekniko egokiekin bat eginez eraikitze erregulazio bat prestatzeko helburuz. Txostenean jartzen zuenez, nazio- eta eskualde-mailako agintaritzek linea elektrikoen inbentarioan eta linea elektriko arriskutsuen identifikazioan inbertitu zuten, linea horiek moldatu edo aldatu zitezten, hegaztien kontserbazioari eta banaketari begira. Gobernu agentziek, ikerketa-institutuek eta GKE-ek monitorizatzen zuten linea elektrikoek hegaztiengan duten inpaktua, baina ez zen nazio-mailako monitorizazio-protokolorik ezarri, nahiz eta GKE eta institutu zientifiko batzuek heriotza-tasa eskualdeen artean alderatzeko laginketa-metodoak garatu zituzten. Administrazioa hegaztien gorpuzkiak espezie-mailan identifikatzen laguntzeko eskuliburu bat garatzen ari zen, eta linea elektrikoen ondoriozko heriotzak ebaluatzen lagunduko du horrek. Txostenak aipatzen zuenaren arabera, konpainia elektrikoen, gobernuko eskualde- nahiz nazio-mailako agintaritzen eta kontserbaziorako antolakundearen arteko borondatezko lankidetzaren ondorioz, energia-azpiegitura arriskutsuen gainean neurriak hartzeko zenbait akordio sinatu ziren. Gobernuko agintaritzek eta konpainia elektrikoek diruz lagundu zieten ekintza horiei.

<sup>18</sup> [Afrika eta Eurasiako hegazti harrapari migratzaileen kontserbazioari buruzko ulermen-memoranduma](#).

<sup>19</sup> Action plan for the conservation of migratory birds of prey in Africa and Eurasia

<sup>20</sup> <https://www.coe.int/en/web/conventions/full-list/-/conventions/treaty/104>

<sup>21</sup> Espainiak 1986ko maiatzaren 13an berretsi zuen hitzarmen hori (1986ko urriaren 1eko BOE).

*dagokien mailan*» mantendu edo hari egokitzeko, eskakizun ekonomikoak eta jolas-arlokoak kontuan hartuta eta galzoriko espezieei nahiz espezie zaugarriari arreta berezia jarri. Hitzarmenaren 7. artikulua basafaunako espezieak babesteko neurri egoki eta beharrezkoak hartzea eskatzen du. Horien ustiapena erregulatu egin behar da, populazio horiek arriskutik kanpo eta «*zehazki eskakizun ekologiko, zientifiko eta kulturei dagokien mailan*» egon daitezela. Hitzarmenak II. eranskin<sup>22</sup> bat (zorrozki babestuta dauden fauna-espezieak) eta III. eranskin<sup>23</sup> bat (fauna-espezie "babestuen" zerrenda) aurreikusten ditu.

Bernako Hitzarmenaren Batzorde Iraunkorrak 110. Gomendioa eman zuen 2004ko abenduaren 3an, elektrizitatea airetik garraiatzeko instalazioek hegaztiak dakartzkien ondorio kaltegarriak murrizteari buruzkoa<sup>24</sup>. Gomendio horretan, bada, transmisio elektrikoaren instalazioetan hegaztien heriotza-tasa murrizteko neurri egokiak eta ekonomikoki errentagarriak hartzeko eskatzen zaie Europako Kontseiluko estatu kideei, Bonnekoko Hitzarmenaren 7.4. Ebazpena kontuan hartuta; hots, migratzaileak ez diren baina kaltea jasan dezaketen espeziei ere neurriok ezartzea eskatzen da. Hegaztiak elektrokutatzea saihesteko ezarri behar dira neurriok, euskarri arriskutsuenak debekatuz eta instalazio berrietan nahiz birgaituetan hegaztien segurtasuna bermatzeko dauden teknika onenak erabiliz. Hegaztientzat bereziki garrantzitsuak diren tokietan edota talken aurrean zaugarriak izan daitezkeenean talkak saihesteko, aurretik bestelako aukerak ebaluatu ondoren eta baldintza teknikoek eta finantzarioek ahalbidetzen badute behintzat, kableak lurpean jartzea proposatzen du ebazpenak. Dauden linea elektrikoetan detektatzen diren talkei eta elektrokuzioei buruzko informazioa sistematikoki biltzeko gomendio bat dago ebazpenean.

### **5.3. Europar Batasunak hegazti basatien babes-arloan duen zuzenbidea. Hegazti basatien kontserbazioari buruzko Zuzentaraua (Hegaztien Zuzentaraua)**

Europar Batasunaren esparruan, hegazti basatien kontserbazioari buruzko 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentarauaren<sup>25</sup> bidez ezarri zen hegazti basatiak babesteko indarreko araubidea. Honako hau da zuzentarau honen xedea: estatu kideen lurralde europarrean modu basatian bizi ohi diren hegazti-espezie guztien kontserbazioa bermatzea.

2. artikulua esaten duenez, hegazti-espezie basati guztien populazioak «*eskakizun ekologiko, zientifiko eta kulturei dagokien mailan*» mantentzeko edo maila horretara egokitzeko behar diren neurri guztiak hartu behar dituzte estatu kideek, «*eskakizun ekonomikoak eta jolas-arlokoak kontuan hartuta*». 3. artikulua, berriz, estatu kideek haien habitaten dibertsitatea eta azalera nahikoa

<sup>22</sup> [II. eranskina](#):: bereziki babestutako espezieak jasotzen dira; adibidez, hegazti harrapari guztiak (falkoniformeak) eta zikoina guztiak.

<sup>23</sup> [III. eranskina](#):: fauna-espezie "babestuak" jasotzen dira; hala nola, II. eranskinen jasota ez dauden hegaztiak (arruntagoak diren batzuk kenduta: uso arrunta, arabazozo pikarta, belea, txolarrea, mika edo kaio hauskara).

<sup>24</sup> [Recommendation No. 110 \(2004\)](#) on [minimising](#) adverse effects of above-ground electricity transmission facilities (power lines) on birds

<sup>25</sup> [2009/147/EE Zuzentaraua, 2009ko azaroaren 30ekoa, hegazti basatien kontserbazioari buruzkoa](#)

babesteko, mantentzeko edo berrezartzeko behar diren neurri guztiak hartuko dituztela jasotzen du.

Zuzentarauaren 5. artikulua esaten duen moduan, estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, normalean egoera basatian bizi diren hegazti-espezie guztiak babesteko araubide orokor bat ezartzeari begira. Babes-araubide horrek barruan hartuko du hegazti horiek nahita hil edo harrapatzeko debekua, erabilitako metodoa edozein izanda ere, edota nahita aztoratzekoa, espezie jakin batzuk ehizatzen dauden aurreikuspenak bazter utzi gabe.

Bestalde, 4. artikulua arautzen duen bezala, kontserbazio bereziko hegazti-espezieek (I. eranskina) kontserbazio-neurri bereziak izan behar dituzte habitatari dagokionez, haien banaketa-eremuan bizirautea eta ugaltzea ziurta dadin. Era berean, estatu kideek antzeko neurriak hartuko dituzte I. eranskinean jasotzen ez diren baina haien ugalketa-, muda- eta negupasa-eremuetara nahiz migrazio-eremuetako atsedentokietara aldizka iristen diren hegazti migratzaileekin. Horri begira, estatu kideek garrantzi berezia emango diote zona hezeen babesari.

Estatu kideek, halaber, kopuruan eta neurrian egokienak diren lurraldeak babes bereziko eremu (BBE) izendatu behar dituzte kontserbazio bereziko espezie horientzat (baita I. eranskinean sartuta ez dauden espezie migratzaileentzat ere). Zuzentaruak eskatzen duenez, estatu kideek neurri egokiak hartu beharko dituzte hegaztiei eragiten dieten asaldurak saihesteko, xedeei dagokienez ondorio nabarmena duten neurrian.

**. Habitat naturalen eta basafauna nahiz basaflorearen kontserbazioari buruzko Zuzentaruak (Habitaten Zuzentaruak).** Bestalde, habitat naturalen eta basafauna nahiz basaflorearen kontserbazioari buruzko 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EE Zuzentaruak<sup>26</sup> Europar Batasunaren biodibertsitatea bermatzen lagundu nahi du, habitat naturalak eta fauna- nahiz flora-espezie basatiak kontserbatuz. Zuzentaruak habitatak lehengoratzeko eta Batasunaren intereseko animalia-espezieen kontserbazioa egoera onean edukitzea du xede. Horretarako, Natura 2000 Europako sare ekologikoa osatzen duten kontserbazio bereziko eremuen (KBE) izendapena izango da tresna.

**Ingurumen-erantzukizunari buruzko Zuzentaruak.** Ingurumen-erantzukizunari buruzko 2004ko apirilaren 21eko 2004/35/EE Zuzentaruak zenbait lanbide-jarduerak eragiten dituzten ingurumen-kalteak prebenitu eta konpontzeko betebeharra ezartzen du. Zuzentaruak kalte hauek sartzen ditu ingurumen-kaltearen kontzeptuaren barruan: espezie eta habitat natural babestuei egindako kalteak, habitat edo espezie horien kontserbazio-egoera ona lortzeko edo mantentzeko aukerari eragozpen handiak jartzen dizkietenak. Ondore horietarako, 2004/35/EE Zuzentaruaren 2.3.a) artikulua espezie babestutzat jotzen ditu kontserbazio bereziko hegazti-espezie guztiak, Hegaztien Zuzentaruaren I.

<sup>26</sup> [Habitat naturalen eta basafauna nahiz basaflorearen kontserbazioari buruzko 1992ko maiatzaren 21eko 92/43 Zuzentaruak](#)

eranskinean sartutakoak eta, eranskin horretan sartuta egon ez arren, zuzentarauaren 4.2. artikuluan aipatzen diren gainerako hegazti migratzaileak. Halaber, estatu kideek ondorio baliokideekin zehazten dituztenak sartzen dira.

**Batzordearen komunikazioa: «Energia garraiatzeko azpiegitura eta EBk naturaren babesaren inguruan duen legedia».** Hegaztiak linea elektrikoen aurrean babesteko eremuan, Europako Batzordearen komunikazio hau aipatu behar da: *«Energia garraiatzeko azpiegitura eta EBk naturaren babesaren inguruan duen legedia»*<sup>27</sup>. Komunikazioak adierazten duenez, elektrokuzioak inpaktu handia izan dezake hainbat hegazti-espezietan, espezie horien milaka aleren heriotza eragiten baitute urtero. Honako hauek dira elektrokuzioak sarrien eragindako espezieak: zikoniformeak, falkoniformeak, estrigiformeak eta paseriformeak. Hegaztiak «gaizki diseinatutako» erdi-tentsioko elektrizitate-posteekin elektrokutatze arriskuaren inguruan, adostasun handia dago. Hegaztiak elektrokutatze arriskuan eragiten duten faktoreen artean, honako hauek daude: hegaztien morfologia (handiak zaurgarriagoak dira), lineen tipologia (biktima gehienak erdi-tentsioko -1 kV-ren eta 60 kV-ren artekoak- banaketa-lineen posteetan gertatzen dira) eta elektrokuzio-aukera handitu dezaketen bestelako ingurumen-faktoreak (hala nola, landare-egitura eta -estaldura, poste elektrikoen urritasuna -adibidez, larreetan edo hezeguneetan- edo landarediaren altuera). Aipaturiko ikerketek<sup>28</sup> adierazten dutenaren arabera, malda handiez inguraturiko tokietan dauden euskarriek elektrokuzio-tasa handiagoak izaten dituzte.

Dokumentuan, elektrizitatea garraiatu eta banatzeko instalazioak jartzeko, ustiatzeko eta eraisteko orientabideak eta jarduera onak jasotzen dira, Natura 2000 eremuei eta habitatei dagokienez eta hegaztiei buruzko zuzentarauek babestutako espezieei dagokienez. Agintaritza nazionalak jarrai ditzaketen zenbait urrats biltzen dira, linea elektrikoen segurtasun-neurriak lehentasunez aplikatzeko eremuei lehentasuna emateari begirakoak. Honako hau da planteamendu horren azpiko printzipio orokorra: lehentasunezko espezie gehien eta espezie horien populazioaren zati handi bat hartzen edo elikatzen dituzten eremuak hautatu behar dira lehenik, prebentziorako eta murrizketarako lehentasun nazionalak izan daitezten. Izendatzen diren nahiz izendatzen ez diren zonalde eta tokiak lehentasun handi, ertain edo txikiko eremutzat jo behar dira, lehentasunezko espezieentzat duten garrantziaren arabera (dentsitatea eta ugaritasuna aldi batekoa edo iraunkorra izan). Dokumentuan, halaber, Europar Batasunaren finantza-programa batzuk aipatzen dira, natura kontserbatzeko bereziki garrantzitsuak izan direnak; besteak beste, LIFE+ programa, hegaztiak elektrokutatze arriskua eragiten zuten azpiegitura elektrikoak egokitzeko proiektuak finantzatu dituenak, edo BESTGRID programa, sare elektrikoa garatzeko prozesuen onarpen lokal eta publikoa hobetzeko.

<sup>27</sup> [Energia garraiatzeko azpiegitura eta EBk naturaren babesaren inguruan duen legedia» \(2018/C 213/02\)](#)

<sup>28</sup> [Minimising Mortality in Endangered Raptors Due to Power Lines: The Importance of Spatial Aggregation to Optimize the Application of Mitigation Measures](#)

## 6. Hegazti basatiak babesteko legedi nazionala.

### 6.1. Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legea.

Habitaten Zuzentaraua Espainiako zuzenbidera eramateko, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea sortu da<sup>29</sup>. Lege horretan, natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatu, modu jasangarrian erabili, hobetu eta lehengoratzeko oinarritzko araubide juridikoa jasotzen da, eta espezie basatiak eta haien ekosistemak biltzen ditu.

54. artikulua botere publikoei zuzendutako agindu bat ezartzen du, espezie autoktono basati guztiak kontserbatzea bermatzeko. Xedapen horrek erregulatzen duenez, Estatuko Administrazio Nagusiak eta autonomia-erkidegoek, haien eskumenen eremuan, modu basatian bizi den biodibertsitatea kontserbatzea bermatzeko behar diren neurriak hartu behar dituzte, eta babes behar duten espezie basatiak babesteko araubide espezifikoak ezarri.

42/2007 Legeak goi-mailako bi babes-kategoria arautzen ditu espezie basatientzat: Babes Bereziko Araubideko Espezie Basatien Zerrenda (56. artikuluan) eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa (58. artikulua).

Babes Bereziko Araubideko Espezie Basatien Zerrendan, haien balio ekologikoa, berezitasuna, bakantasuna edo mehatxu-maila direla-eta arreta zein babes bereziak behar dituzten espezieak eta populazioak jasotzen dira, baita *«Espainiak berretsi dituen zuzentarauen eta nazioarteko hitzarmenen eranskinetan babestu gisa agertzen direnak ere»*. Horrela, ingurumen-arloan eskumena duen ministerioak zerrendara sartuko ditu hala egitea aholkatzen duen informazio tekniko edo zientifikoa duten espezieak eta, ofizioz, Habitaten Zuzentaruaren eta Espainiak berretsi dituen nazioarteko hitzarmenen eranskinetan (Booneko Hitzarmena, AEWA, Raptors MOU eta Bernako Hitzarmena) babestu gisa agertzen diren espezieak.

Autonomia-erkidegoek Babes Bereziko Araubideko Espezie Basatien Zerrendak egin ahalko dituzte, espezie haiek zaintzeko edota babes-maila handiagoa ezartzeko beharrezkotzat jotzen diren debekuak eta jarduera osagarriak zehaztearekin batera.

Espezie Mehatxatuen Katalogoak, 58. artikuluan aurreikusten denak, espezie mehatxatuen populazioak biltzen ditu. *«Galzoriko»* espezieen kategoriaz mintzo gara, gaur egungo egoeraren faktore kaltegarriak iraunez gero nekez biziraungo dutenean, eta espezie *«zaugarriez»* ari gara, faktore kaltegarriak zuzendu ezean berehalako etorkizunean beste kategoriara igartzeko arriskua dutenean. Autonomia-erkidegoek, haien lurralde-eremuetan, babes-maila areagotu dezakete, eta espezie mehatxatuen beste kategoria batzuk ezarri.

<sup>29</sup> <https://www.boe.es/buscar/pdf/2007/BOE-A-2007-21490-consolidado.pdf>



Espezie bat «galzoriko» kategoriara sartuz gero, lehengoratzeko-plan bat egin beharko da; «zaugarrien» kategoriara sartuz gero, berriz, kontserbazio-plan bat egin beharko da. Autonomia-erkidegoek kontserbazio- eta lehengoratzeko-planak egin eta onetsiko dituzte lehorreko espezie mehatxatuentzat.

Otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretuak Babes Bereziko Araubideko Espezie Basatien Zerrenda eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa<sup>30</sup> bildu ditu. Babes Bereziko Araubideko Espezie Basatien Zerrendaren barruan, Habitaten Zuzentzarauaren eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen (Booneko Hitzarmena, AEWA, Raptors MOU eta Bernako Hitzarmena) eraginez nolabaiteko babes-araubidea duten hegazti basatien multzoa jasotzen da. Gauzak horrela, zerrenda horrek hegazti harraparien eta hegazti migratzaileen multzoa jasotzen du, Bernako Hitzarmenaren III. eranskinean sartuta ez dauden hegazti arruntagoak kenduta<sup>31</sup>.

Hegaztientzako kontserbazio bereziko eremuei buruz, 42/2007 Legearen 44. artikulua adierazten du hegaztientzako babes bereziko eremu (HBBE) izendatuko direla Hegaztien Zuzentzarauaren I. eranskineko kontserbazio bereziari buruzko IV. eranskinean sartutako hegazti-espezieak eta Espainian aldizka egoten diren hegazti migratzaileak kontserbatzeko toki egokienak. Toki horietan, asaldurak saihesteko neurriak eta habitatak kontserbatzeko neurri bereziak ezarri behar dira, biziraupena eta ugalketa bermatze aldera. Espezie migratzaileen kasuan, neurriek kontuan hartuko dituzte haien ugalketa-, elikadura-, muda-, negupasa- eta atsedena-areak, garrantzi berezia emanez toki hezei eta, oso bereziki, nazioartean garrantzitsuak direnei.

## **6.2. Espezie basatien kontserbazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko araudian.**

Euskadin, [Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onesten duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua](#) da espezie basatien babesa erregulatzen duen lege-esparrua. Arau horrek Euskal Autonomia Erkidegoko basafauna kontserbatu eta errespetatzeko manua xedatzen du, natura-ondarearen zatitzat hartzen baitu.

Xede horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen 40. eta 41. artikuluek euskal administrazio publiko eskudunentzako zenbait betebeharrak biltzen dituzte, habitat naturalak kontserbatzeko eta natura-ingurunean bizi diren basafaunako populazioak «*eskakizun ekologiko, zientifiko eta kulturali dagokien mailan*» mantentzeko begirakoak.

44. artikulua zehazten duenez, basafauna eta basafloreko espezie autoktonotzat hartzen dira Euskal Autonomia Erkidegokoak bertakoak direnak edo bertan berez

<sup>30</sup> [Babes bereziko araubideko espezie basatien zerrenda eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa](#)

<sup>31</sup> [III. eranskina](#): fauna-espezie "babestuak" jasotzen dira; hala nola, II. eranskinean jasota ez dauden hegaztiak (arruntagoak diren batzuk kenduta: uso arrunta, arabazozo pikarta, belea, txolarrea, mika edo kaio hauskara).

basa-egoeran bizi direnak, eta horien artean sartzen dira bertatik igarotzen ari direnak, negua bertan ematen dutenak edo noizbehinka egoten direnak ere.

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen 56. artikulua debekatu egiten du basafaunako edozein espezie hil edo harrapatzea, ehizaren inguruko legediak espezie zinegetikoen gainean egiten duen erregulazio espezifikoak kenduta.

Babes-kategoriari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen 47. artikulua Basa eta Itsas Fauna eta Florako Espezie Mehatxatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Zerrenda sortzen du. Katalogo horretan, babes-neurri espezifikoak behar dituzten espezie edo populazio guztiak sartzen dira. Espezieak, bada, lau babes-kategoriatan sailkatzen dira, espezieak bere banaketa-eremu natural osoan duen mehatxu-egoeran erabakigarriak diren faktoreen arabera, egoera hori arindu edo larriagotu dezaketen inguruabarrak egon gorabehera. Honako hauek dira kategoria horiek: a) «galzorikoak», nekez biziraungo duten espezieak; b) «zaugarriak», berehalako etorkizunean aurreko kategoriara igartzeko arriskua duten espezieak; c) «bakanak», populazio txikiak dauzkaten eta eremu geografiko txikietan edo azalera handiago batean sakabanatuta bizi diren espezieak, «galzorian» ez badaude edo «zaugarriak» ez badira; d) «interes berezikoak», balio zientifiko, ekologiko edo kulturalagatik nahiz berezitasunagatik arreta berezia merezi duten espezieak. Animalia-espezie bat katalogora sartzen bada, 50. artikuluan arabera eta 57. artikuluan erregulatzen diren salbuespenak kenduta, berariaz debekatuko da hura hil edo harrapatzea, eta kudeaketa-plan bat onetsi beharko da, delako espeziearen populazioak lehengoratzeko, kontserbatzeko edo behar bezala maneiatzeko sustatzeko eta dauden mehatxuak deuseztatzeko ildoak eta neurriak jasoko dituenak.

Horri buruz, onetsitako bi kudeaketa-plan aipatu behar dira. Batetik, Arabako Foru Aldundiak Bonelli arranoa edo aztore-arranoa izeneko hegaztiaren kudeaketa-plana onetsi zuen Arabako lurralde historiko osorako, 2001ean<sup>32</sup>. Planean, elektrokuzioa eta talka jasotzen dira espezie horren mehatxu nagusi gisa. Horretarako, banaketa-eremu potentzial guztian eta, bereziki, interes bereziko eremuetan elektrokutatuta eta talka eginda hildako aleen kopurua murrizteko zenbait neurri zehazten ditu. Horien artean, Arabako Foru Aldundiaren eskudun foru-sailak eremu horiei zuzenean nahiz zeharka eragin diezaieketen planak edo proiektuak aurretik kontrolatzeko dago. Halaber, instalazio elektrikoaren araudi teknikoak betetzen dela zaintzeko neurriak ezartzen dira, hegazti-fauna babesteko xedez. Dauden lineei dagokienez, lankidetzak-hitzarmenak sinatuko dira eragindako enpresa elektrikoekin, zehaztutako interes bereziko eremuetatik igarotzen diren hegaztientzat elektrokuzio- edo talka-arriskua duten linea elektriko guztiak pixkanaka zuzentzen joateko.

---

<sup>32</sup> [612/2001 Foru Agindua, irailaren 28koa.](#)

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen kudeaketa-plana bateratuak, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako<sup>33</sup>, Bizkaiko<sup>34</sup> eta Gipuzkoako Foru Aldundiek elkarrekin idatzitakoak, ugatzaren (*Gypaetus barbatus*), sai zuri arruntaren (*Neophron percnopterus*) eta sai arrearen (*Gyps fulvus*) populazio-dinamikaren gainean ondorio kaltegarriak izan ditzaketen faktoreak deuseztatzea du xede. 12. artikuluan, elektrokuzioaren eta talkaren ondoriozko heriotza-tasa murrizteko neurri-multzo bat ezartzen da, eta, horren arabera, araudi elektrotekniko nazional eta autonomikoa betetzen dela bermatu behar da interes bereziko eremu izendatuetan. Dauden lineei dagokienez, eragindako enpresa elektrikoekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatzea aurreikusi da, eta interes bereziko eremuetatik igarotzen diren hegaztientzat elektrokuzio- edo talka-arriskua duten linea elektriko guztiak pixkanaka zuzenduko dira.

### **6.3.26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa.**

2004/35/EE Zuzentaraua Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 36/2007 Legearen bidez ekarri zen, eta, bertan, prebentzioaren eta "*kutsatzen duenak ordain dezala*" printzipioetan oinarrituriko administrazio-araubide bat jasotzen da, ingurumen-erantzukizun objektiboari buruzkoa. Ingurumen-erantzukizunak, bada, eragindako kaltea konpontzeko betebeharra ezartzen dio operadore erantzuleari, edo, hala badagokio, prebentzio-neurriak hartzekoa, kaltetutako natur baliabideak aurreko egoerara itzul daitezen.

Ingurumen-kaltearen kontzeptuaren barruan, 2004/35/EE<sup>35</sup> Zuzentaruaren 2.3.a) artikuluan aipatzen diren edo legedi komunitario, estatal eta autonomikoa zein Espainiak onarturiko nazioarteko hitzarmenek (Booneko Hitzarmena, AEWA, Raptors MOU eta Bernako Hitzarmena) babesten dituzten espezie basatien kontserbazio-egoera ona izatea galarazten duten ondorio kaltegarri handiak dauzkan edozein kalte sartzen da<sup>36</sup>. Zehazki, Espezie Mehatxatuen Espainiako Zerrendan edo autonomia-erkidegoek haien lurralde-eremuetan ezarritako zerrendetan sartutako espezieei dagokienean.

Bestalde, eskudun administrazioak prebentzioaren arloan edo kalte egitea saihesteko arloan esku hartzeko ahala daukala ezartzen dute 26/2007 Legearen 18. eta 19. artikuluek. Administrazioak, kalte-mehatxua dagoela balioesten duenean, operadore erantzuleari zuzenduriko neurriak hitzartu ahalko ditu, mehatxu horri buruzko informazioa eman dezan, kalte horiek prebenitu edo saihesteko neurriak hartu eta bete ditzan eta, hala badagokio, prebentzio- edo saiheste-neurrion subjektu erantzulearen kontura betearaz ditzan. 26/2007 Legearen 21. artikulua, berriz, ingurumen-administrazioak espezie basatiei eta haien habitatei eragindako ingurumen-kalteak konpontzea eskatzeko ahalmena

<sup>33</sup> [229/2015 Foru Agindua, maiatzaren 22koa.](#)

<sup>34</sup> [Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 83/2015 Foru Dekretua.](#)

<sup>35</sup> 4.2. artikuluan aipaturiko edo 2009/147/EE Zuzentaruaren I. eranskinean nahiz 92/43/EE Zuzentaruaren II. eta IV. eranskinetan zerrendatutako espezieak.

<sup>36</sup> Bernako [Hitzarmenak](#) hegazti harraparien eta hegazti migratzaileen multzoa jasotzen du zerrendan, Bernako Hitzarmenaren III. eranskinean sartuta ez dauden hegazti arruntagoak kenduta [III. eranskina](#).

duela jasotzen du. Zeregin horretan, neurri primarioak, osagarriak edo kaltea konpentsatzekoak eskatu ahalko ditu. Ingurumen-erantzukizuneko aginduok betetzen ez badira, arau horretan erregulatutako zigorrak ezarri ahalko dira.

Urriaren 23ko 26/2007 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, eskudun agintaritzak lege honen ondoriozko ingurumen-erantzukizuneko kasu guztien berri eman behar dio Fiskaltzari, eta «*legea aplikatzeko xedea duten administrazioarekiko auzi-prozesuetan*» legitimitatea aitortzen dio Fiskaltzari.

#### **6.4. Elektrizitatearen sektoreko legedia.**

Elektrizitatearen sektorea erregulatzen duen legedi sektorialean, Elektrizitatearen Sektoreari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legea aipatu behar da.

Arau horren 53. artikulua xedatzen duenaren arabera, energia elektrikoa garraiatu, banatu eta ekoizteko instalazio berrien eta zuzeneko lineen sustatzaileak dagokion administrazio-baimena eskuratu ahal izan dezan, ingurumena babesteko baldintzak behar bezala betetzen dituela egiaztatu beharko du, baita instalazio horien konponketetan ere.

24/2013 Legearen 64. eta 65. artikuluek adierazten dutenez, administrazioaren arloko arau-haustetzat joko da manu tekniko horiek (eska daitezkeenean) ez betetzea, bai eta lineak kontserbazio-baldintza egokietan nahiz teknikoki behar bezala edukitzeko betebeharra ez betetzea ere, pertsonentzat, ondasunentzat zein ingurumenarentzat arriskua edo kaltea badakarte. Egindakoaren larritasunak delitua era dezakeenean, erruduntasun-testigantza berri emango zaio Fiskaltzari, eta espediente zehatzailearen izapidea bertan behera geratuko da<sup>37</sup>.

Goi-tentsioko linea elektrikoaren baldintza teknikoari eta segurtasun-bermeei buruzko indarreko erregelamenduak ezartzen duenez (otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa), hegazti-faunaren inguruko gertakariez informatu behar da eta babesteko arauak betetzen ote diren ikuskatu behar da, dauden lineetarako 2.3 artikuluan ezarritako moduan.

9. artikuluan jasota dago txosten bat egin behar dela linea elektrikoetan gertakariak jasotzen diren bakoitzean, baldin eta gertakari horiek Babes Bereziko Araubideko Espezie Basatien Zerrendan sartuta dauden hegaztiei badagozkie. Kalteak sortzen dituen istripu bat gertatzen denean, edo arriskua egon daitekeen egoera objektiboetan, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 56. artikulua arabera babestuta dauden espezieei eragiten badiete, linearen jabeak txosten bat bidali beharko dio, hiru hilabeteko epean, autonomia erkidegoko energia arloko organo eskudunari, eta haren berri eman beharko die dagokion ministerioko eta instalazioa kokatuta dagoen autonomia erkidegoko ingurumen arloko organo eskudunei. Linea elektrikoak aldizka

<sup>37</sup> Konstituzio Auzitegiaren 1983ko urriaren 3ko Epaiak zehazten duenaren arabera, egitate bat delitutzat joko da, egindakoaren larritasunak aipaturiko lege-xedapenetan jasotzen diren kasuen berezko larritasuna gainditzen duenean.

ikuskatzean, oso akats larritzat jotzen da abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan ezarritako arauak ez betetzea babes-eremuetan kokatuta dauden lineetan eta administrazio eskudunak arriskutsuak direla jakinarazi duenean. Babes-eremuetatik kanpoko lineei dagokienez, akats larritzat joko da arauak ez betetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak erregulatzen ditu energia elektriko instalazioei administrazio-baimena emateko prozedurak, Euskal Autonomia Erkidegoak haien eskumena badu. Kasu horretan, 13. artikulua esaten du 2016ko maiatzaren 16ko Agindua betetzen dela egiaztatu beharko dela instalazio bat eraikitzeko administrazio-baimena jaso ahal izan dadin edo, hala badagokio, aldaketa txikiak egiteko ustiapen-baimena jaso ahal izan dadin.

Halaber, dekretu horrek erregulatzen ditu instalazioen aldizkako egiaztapen eta ikuskapenak eta, azkenik, instalazioen inguruko erantzukizun eta zigorrak. Dekretuaren 31. eta 32. artikuluek jasotzen dutenez, gutxienez hiru urterik behin egiaztatu edo ikuskatuko dira instalazioak eta linea elektrikoak, instalatzen direnean indarrean dauden arauko baldintzak betetzen ote dituzten egiaztatzeko. Alabaina, aurretik dauden instalazioak *«egiaztapenaren unean indarrean diren baldintza eta manu teknikoetara egokitu beharko dira, egoera orokorragatik, kokapenagatik edo ezaugarriengatik pertsonentzat edo ondasunentzat arrisku larria badakarte edo beste instalazio batzuen funtzionamendu normalean asaldura onartezinak eragiten badituzte»*.

Era berean, Industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Legeak ukitzen dituen instalazio elektriko proiektuek bat egin beharko dute industriako segurtasun- eta kalitate-arau teknikoekin, Industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Legean eta gainerako araudi aplikagarrian aurreikusitakoaren arabera.

## **7. Basafaunaren babesa kontrolatzeko funtzio publikoa.**

Espaniako Konstituzioaren 45. artikulua, pertsonen ingurumen egokia izateko eskubidearekin batera, ingurumena kontserbatzeko betebeharrak publikoak jasotzen ditu. Konstituzio-printzipio horrek *«natur baliabide guztien arrazoizko erabileraren»* alde egingo duen «funtzio publiko» bat sortzen du, xede bikoitza duena. Batetik, pertsonen bizi-kalitatea babestu eta hobetzeko helburua dauka, eta, bestetik, ingurumena «defendatu eta lehengoratzekoa». Ingurumenaren babesa kontrolatzeko funtzio publiko horrek lan prebentibo nahiz errepresiboa biltzen ditu. Alde batetik, ingurumen-arloko funtzio publikoak prebentzio-neurriak zehaztea agintzen die botere publikoei, ingurumenari kalte egin diezaioketen giza jarduerak ekar ditzaketan arriskuei dagokienez. Beste alde batetik, honako hau da ingurumen-kontrolaren oinarria: ingurumen-administrazioak eraginkortasunez kontrolatu behar du ezarritako neurriak betetzen direla, eta ager daitezkeen inpaktu berriak ebaluatu behar ditu. Horretarako, ingurumenean arriskuak nahiz kalteak eragiten dituzten jokoerak ikuskatu eta kontrolatuko dituen ekintza publikoa behar da, diziplinazkoa nahiz konpontzailea. Ingurumen-kontrola babes-ekintza bat da, eta berori betetzeko arauen nahiz jarduketan bidez gauzatzen da.

Horrelaxe adierazi zuen Konstituzio Auzitegiak ekainaren 26ko 102/1995 Epaian, ingurumen-babesa honako hau dela esan baitzuen: *«Ingurumen-babesa jarduera beligerantea da, eta arriskua desagerrarazi nahi du, baita, hala badagokio, jasandako kaltea lehengoratu nahi ere, eta, are, ingurunearen ezaugarriak hobetu, guztiok inguru horretaz gozatzea bermatzeko».*

### 7.1. Instalazio elektrikoaren proiektuetarako ingurumen-baimena.

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, indarrean jarri zenetik, ingurumen-inpaktuaren azterlana egitea eskatzen du. Lan horretan, ingurumena zaintzeko programa bat jasoko da energia elektrikoa garraiatu eta banatzeko lineen instalazio-proiektuetarako, I. eranskinean<sup>38</sup> sartuta badaude edo ingurumen-organoak II. eranskinari<sup>39</sup> dagokionez kasu bakoitzean hala egitea erabakitzen badu.

Ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpen bat formulatu beharko du, eta, bertan, ingurumena eta natur baliabideak behar bezala babesteko ingurumen-baldintzak zehaztuko dira. Ondoren, sektore elektrikoan eskumena duen organoak emango duen baimen sektorialari atxikiko zaio.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra ere ezarri duenez, azpiegitura elektrikoaren proiektu jakin batzuk ingurumen-erloto zuzentasun- eta egokitzapen-neurriekin bat etorri izapidetu behar dira. Bestetik, ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazioa egingo zaie I. eranskinean<sup>40</sup> sartuta dauden proiektuei edo II. eranskinean sartuta dauden jarduera eta instalazio sailkatuei (jarduera-lizentziaren<sup>41</sup> edo -komunikazioaren<sup>42</sup> mende daudenei).

Sailkatutako jarduera eta instalazioetan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagozkie zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-eskumenak.

<sup>38</sup> I. eranskinak 3.g) taldean sartzen du energia elektrikoa garraiatzeko aireko lineen eraikuntza, linea horiek 220 kV-ko tentsioa edo hortik gorakoa badute eta 15 kilometrokoa baino luzera handiagoa badute. 8. taldean, berriz, 3 kilometrotik gorako luzera duten, zona bereziki sentikorretan dauden eta energia elektrikoa garraiatzen duten aireko lineak sartzen dira.

<sup>39</sup> 4.a) taldean daude, ostera, aireko lineen bidez energia elektrikoa garraiatzen duten eta 3 kilometrotik gorako luzera duten instalazio industrialak (I. eranskinean jasota ez dauden proiektuak).

<sup>40</sup> 1 B) 3. 4. [eranskinak](#) ingurumen-inpaktuari buruzko banakako ebaluazio-prozeduran sartzen ditu energia elektrikoa banatzeko lineen eta energia elektrikoa eraldatzeko azpiestazioen eraikuntza-proiektuak, ingurumen aldetik sentikorrek diren eremuetan garatzen badira oso-osorik edo zati batean.

<sup>41</sup> Jarduera-[lizentziaren](#) mende daude, oro har, 100 kW-tik gorako potentzia instalatua duten eta energia elektrikoa ekoizten duten instalazioak eta osasunean nahiz ingurumenean antzeko ondorioak izan ditzaketen bestelako jarduerak.

<sup>42</sup> Aurretiko [komunikazioa](#) bidali beharko dute energia elektrikoa ekoizteko instalazioek eta energia berriztagarria atzeman eta energia elektriko bihurtzeko instalazioek (50 kW-tik gorako baina 100kW-ko edo hortik beherako potentzia instalatua badute), eraldaketa-zentroek, informazioa tratatu eta komunikatzeko zerbitzuek (antena eta telefono mugikorreko deien banaguneak eta antzekoak), instalazio osagarriak edota osasunean nahiz ingurumenean antzeko ondorioak dauzkaten bestelako jarduerak.

Aldi berean, ingurumen-kontrol hori ez da ingurumen-baimenaren baldintzetara mugatu behar; izan ere, era egokian garatzeko, jarraipena egin behar zaio, eta emaitza jakinak eskatu, aldez aurretik finkatutako ingurumen-kalitaterako helburuei dagokienez.

Proiektu bakoitza baimentzeko orduan esku hartu duen ingurumen-agintaritzak loturik dauzka ingurumen-baimenen kontrola eta zaintza. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren mende dauden instalazioei buruz abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 52. artikulua zehazten duenez, instalazio elektrikoa baimentzen duen organo izendunak ingurumen-inpaktuaren adierazpena betetzen dela zaindu behar du, eta horren jarraipena egin. Horri kalterik egin gabe, ingurumen-organoak informazioa bildu ahalko du, bai eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren egiaztapenak egin ere.

Bestalde, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuaren adierazpeneko baldintzak aldatu ahalko dira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarrita dauden baldintzetan nabarmen eragiten duen araudi berri bat indarren jartzen bada edo ingurumen-inpaktuaren adierazpena betetzen dela egiaztatzeko jarraipenean prebentzio- eta konpentsazio-neurriak edota neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla, alferrikakoak direla edo eraginkorrak ez direla hautematen bada.

Horrela, jarduera-lizentzian jasotako ingurumen-eskakizunak segidako traktuen baimentzat hartzen dira. Horrek esan nahi du ingurumen-administrazioak jardueraren sustatzaileari arau tekniko berrietara egokitzea eska dakiogekela eta, hala egin ezean, horrek lizentzia galtzea ekar dezakeela.

Alderdi hori Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 59. bis. 3. artikuluan txertatzen da, zeinean honako hau ezartzen baiten: *«Lizentziak ofizioz aldatu ahalko dira, araudi sektorial berri bat indarrean jartzen bada edo ingurumenari, pertsoneri zein haien ondasunei eragin ahal zaien kalteari dagokionez ezarritako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen denean. Aldaketa horrek ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango»*.

Halaxe ezarri du Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak; ikusi ekainaren 8ko 2316/2017 Epaia, segidako traktukotzat jotzen baitu ingurumen-baimenaren kontzeptua, zentzu honetan: *«Baimen hori interes publikoak unean-unean eskatzen dituen egokitzapen guztien mende dago, eta delako jarduerak begirunezko ingurumen-eragina izatean oinarritzen da interes hori»*.

## 7.2. Goi-tentsioko linea elektrikoek hegazti-faunari ingurumen-kalterik ez eragiteko prebentzioa.

Hegazti basatiak (bereziki, kontserbazio-araubide bereziren bat dutenak; hala nola, hegazti migratzaileak) elektrokuzioaren ondorio larrien aurrean babesteko, nazioarteko, Europako, Estatuko eta Euskadiko babes-araudia dago. Aurreikuspen horiek eratzten dute aske bizi diren hegaztien arrisku nagusietako bati aurre egiteko babes-esparrua, eta azpiegitura elektrikoek hegazti-faunan eragiten duten elektrokuzio- edo talka-arriskuari erantzun eraginkorra ematera behartzen dituzte botere publiko eskudunak.

- **Hegazti-fauna goi-tentsioko linea elektrikoen kontra talka ez egin eta ez elektrokutatzeko neurriak.** Espainiako Estatuak hegazti-faunari eragindako ingurumen-kalte prebenitzeko dituen tresna juridikoetako bat da [1432/2008 Errege Dekretua, abuztuaren 29koa, hegazti-faunak goi-tentsioko linea elektrikoen kontra talka ez egiteko eta ez elektrokutatzeko neurriak ezartzen dituena.](#) Xedapen horrek zenbait arau tekniko eman ditu euskarri elektrikoetarako, aireko linea elektrikoek hegazti basatiei eragindako elektrokuzio- eta talka-arriskuak murrizteko balio dutenak.

2008ko irailaren 14tik indarrean dagoen errege-dekretu hori goi-tentsioko aireko eraikuntza berriko linea elektrikoetara eta jada badauden lineen zabalpenetara edo aldaketetara aplikatu da.

Era berean, honako hau adierazten du 3.2. artikuluan: errege-dekretua indarrean jarri zenean dagoeneko bazeuden erroale biluzidun linea elektrikoen kasuan, elektrokuzioaren kontrako babes-neurriak babespeko eremuetan bakarrik izango dira derrigorrezkoak; talken kontrako babes-neurriak, berriz, hautazkoak izango dira. Horrela, dekretuak babes-neurriak zuzenean ezartzetik salbuesten ditu egokitu gabeko linea elektrikoak, babespeko eremuetatik kanpo badaude.

Errege-dekretuaren 6. artikuluan, elektrokuzioaren kontrako prebentzio-neurriak ezartzen dira, goi-tentsioko 2. eta 3. kategoriako linea elektrikoetara (batez beste 1 kV-ren eta 66 kV-ren arteko tentsioa dutenei) ezartzekoak. 7. artikuluan, aldiz, linea berrietan talka egitea prebenitzeko neurriak jasotzen ditu (hala nola, txori-babesleak edo adierazgailu bisualak), autonomia-erkidegoko organo eskudunak hala erabakitzen duenean eskatuko direnak.

**Babes-eremuen mugaketa.** Babes-eremuak mugatzeko, honako hauek daude: hegaztientzako babes bereziko eremu (HBBE) izendatutako lurraldeak, espezie mehatxatuen Espainiako Katalogoan edo katalogo autonomikoetan sartuta dauden hegazti-espezieak kudeatzeko planen eremuak eta hegazti-espezie mehatxatuen ugalketa-, elikadura-, sakabanaketa- eta kontzentrazio-eremu nagusiak. Xede horietarako, autonomia-erkidego bakoitzean eskumena duen organoak errege-dekretu indarrean jarri eta urtebeteko epean (hau da, 2009ko irailaren 14tik zenbatzen hasita urtebeteko epean) mugatu behar zituen lehentasunezko eremu horiek bere lurralde-eremurako.



**Aurretik baziren eta egokitu ez diren lineen inbentarioa.** Aurreikuspen horrekin batera, honako hau ezartzen du 5.2. artikulua: indarrean jarri (2009ko irailaren 14a) eta urtebeteko epean, autonomia-erkidego bakoitzeko eskudun organoak babes-eremuetan aurretik bazeuden linea elektrikoak identifikatu behar zituen, elektrokuzioa eta talka saihesteko manu teknikoak betetzen ez zituztenak. Ebazpen hori lineen titularrei jakinarazi behar zien, eta aldizkari ofizialean argitaratu.

**Hegazti babestuentzat talken ondoriozko heriotza-tasarik handiena duten lineen inbentarioa.** Xedapen iragankor bakarraren hirugarren atalak beste eskakizun bat jasotzen du autonomia-erkidegoentzat, babes-eremuak argitaratu eta urtebeteko epean Babes Bereziko Araubideko Espezie Basatien Zerrendan (zehazki, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan) sartuta dauden hegaztien «*talken ondoriozko heriotza-tasa nabarmen eta kontrastatua*» zeukaten eta egokitu gabe zeuden lineen bigarren inbentarioa egin zezaten. Lineen titularrei inbentario horren berri ere eman behar zieten, borondatezko aldaketetarako aurreikusita zegoen finantzazioa jaso ahal izan zezaten.

**Egokitzapen-proiektuaren aurkezpena.** Xedapen iragankor bakarrak ezartzen duenez, elektrokuzioaren kontra egokitu gabeko lineak edukitzeagatik errekerimendua jasotzen zuten titularrek horiek egokitzeko proiektua aurkeztu behar zuten, ebazpena jakinarazi eta urtebeteko epean. «*Talken ondoriozko heriotza-tasa nabarmen eta kontrastatua*» zuten eta egokitu gabe zeuden lineen kasuan, proiektua aurkeztea hautazkoa zen.

**Proiektua egikaritzeko finantzazioa.** Lehenengo xedapen gehigarriak ahalbidetzen duenez, Estatuko Administrazioak linea elektrikoak egokitzeko inbertsio-planeari aurreikusitako finantzazioaren kontura gera zitekeen aurkeztu beharreko proiektuaren exekuzioa. Horretarako, Estatuko Gobernuak xedapen iragankor bakarrean jasotzen diren egokitzapen guztiak finantzatzeko beharrezko mekanismo eta aurrekontuak prestatu behar zituen, errege-dekretua indarrean jarri (2013ko irailaren 14a) eta bost urteko gehieneko epean.

Linea arriskutsuen inbentarioan jasota dauden linea elektrikoak egokitzeko finantzazioaren oinarri erregulatzailerak martxoaren 17ko 264/2017 Errege Dekretuaren bidez onartu ziren<sup>43</sup>. Proiektuen artean, galzoriko espezieen eta beste espezie mehatxatu batzuen heriotza-tasan eragin frogatua duten linea elektrikoaren ingurukoak lehenesten dira, baita elektrokuzioa basoko sute larri baten ondorioz eragin duten lineen edota parke nazional batetik igarotzen diren lineen ingurukoak ere.

<sup>43</sup> [264/2017 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, goi-tentsioko linea elektrikoak abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetara egokitzeko behar den finantzaketarako oinarri arautzaileak ezartzen dituena; errege-dekretu horrek hegazti-fauna babesteko neurriak ezartzen ditu, goi-tentsioko linea elektrikoekin talka egin ez dezan eta elektrokutatu ez dadin.](#) Har daitezen kontuan [Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 19ko 88/2018 Epaiaren](#) ondorioak, eskumenak banatzeko ordena konstituzionalaren kontraketat jo baititu horren aurreikuspen batzuk.

**Araubide zehatzailea.** 10. artikulua ezartzen duenez, errege-dekretuan xedatutakoa urratzen duten arau-hausteak Elektrizitatearen Sektoreari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean eta kasuan-kasuan aplika daitezkeen ingurumen-araudian ezarritako araubide zehatzailearen mende jarriko dira.

**- Euskal Autonomia Erkidegoan dauden linea elektrikoaren prebentzio-neurriak.**

**1432/2008 Errege Dekretuan aurreikusitako lineak egokitzeko betebeharrak.** 1432/2008 Errege Dekretuan jasotzen diren baldintzen eta epeen arabera, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoko eskudunak zenbait tresna eta neurri onetsi behar zituen, bere lurraldeko linea elektrikoak elektrokuzioa eta talka saihesteko manu teknikoetara egokitzea bermatzeko.

**Hegaztiak babesteko eremuen mugaketa Euskadin.** Euskal Autonomia Erkidegoko babes-eremuak 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren bidez zehaztu ziren<sup>44</sup>. Honako hauek sartu dira:

Hegaztientzako babes bereziko zazpi eremuak (HBBE): Izki, Urdaibaiko itsasadarra, Gorobel mendilerroa, Arabaren hegoaldeko mendilerroak, Txingudi, Valderejo-Artzenako mendilerroa eta Salburua.

Zenbait hegazti-espezierentzat (uhalde-enara, aztore-arranoa, ubarroi mottoduna eta ekaitz-txori txikia) eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoentzat (sai arrea, sai zuria eta ugatza) onetsitako lehengoratzeko eta kontserbazio-planerako mugatu diren eremuak.

«Aztore-arranoa» kudeatzeko planen eremuak.

Ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzean, harrapari errupikola predatzaileak (arrano beltza, belatz handia eta hontz handia), miru gorria eta ardeidoak, zikoinak, mokozabalak eta hezeguneetara loturiko harrapariak (barrualdekoak nahiz itsasertzekoak eta kostaldekoak) sartu dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraldearen %36,2 izendatu da hegazti-faunarako babes-eremu.

**Aurretik baziren eta egokitu ez diren lineen inbentarioa.** Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenaren bidez<sup>45</sup>, hegazti-

<sup>44</sup> [2016ko maiatzaren 6ko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Honen bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira, eta hegazti-faunaren babes-eremuak, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira, argitaratzen.](#)

<sup>45</sup> [Ebazpena, 2018ko ekainaren 18koa, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariarena, 1432/2008 Errege Dekretuaren 6. eta 7. artikuluetan finkatutako manu teknikoak betetzen ez dituzten goi-tentsioko aireko linea elektrikoak zehazten dituena.](#)

faunarako babes-eremuetan dauden eta elektrokuzioaren nahiz talken kontrako manu teknikoekin bat egiten ez duten goi-tentsioko aireko linea elektrikoen inbentarioa egitea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak.

Zerrenda horretan, babes-eremuan egokitu gabe dauden goi-tentsioko aireko 181 linea elektriko jasotzen dira, eta tentsio izendatuaren arabera eta elektrokuzioaren kontrako zuzenketak egiteko jardun-lehentasunaren arabera ordenatuta daude. Iberdrola Distribución Eléctrica (IDE) enpresa da Euskadiko banaketa-sare elektrikoaren zati handienaren konpainia titularra (zehazki, babes-eremuan dauden 2. eta 3. kategoriakoena), eta 1432/2008 Errege Dekretuak linea horiek elektrokuzioa saihesteko arauetara egokitzea behartzen du.

Lineen talka-arriskuaren araberako lehentasunari dagokionez, egindako diagnostikoak balioesten du ez dela oso bideragarria EAEn aplikatzea, «*zailtasun izugarriak daudelako gaiari buruzko informazio "kontrastatua" lortzeko; hots, zaila da euskal eremuan heriotza-kausa horrekin sentikorrak diren tokiak –hegazti-faunaren tokiak– kokatzea*»<sup>46</sup>. 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean, talken aurrean esku hartzeko irizpidetzat jotzen da programatutako elektrizitate-eteteak baliatzea; izan ere, elektrokuzioaren kontrako zuzenketak egin daitezke etete horietan, egokitzapen-proiektu bakoitzean zehazten diren baoetan baliza txori-babesleak jartzeko.

Ebazpena jakinarazi eta urtebeteko epean, enpresa titularrek Euskadiko linea elektriko arriskutsuenen eragina mugatzeko proiektu zuzentzaileak aurkeztu behar zituzten.

**Egokitzapen-proiektua.** 2019ko ekainaren 13an, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak hitzarmen bat sinatu zuen Iberdrola Distribución Eléctrica enpresarekin, linea elektrikoak hegazti-fauna babesteko moduan egokitzeko helburuz.<sup>47</sup>

Dagoeneko badauden linea elektrikoak hegazti-fauna babesteko moduan egokitzeko jarduketak betetzeari begirako lankidetzaren hitzarmen bat ezartzea da hitzarmen horren xedea, 1432/2008 Errege Dekretuan nahiz 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean aurreikusitakoarekin bat.

Batetik, IDE enpresak 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean ezarritakoa betetzeko konpromisoa hartu zuen. Horretarako, ebazpenean aurreikusten den urtebeteko epean egokitzapen-proiektu bat proposatzeko eta, aipaturiko ebazpenean jasotzen diren irizpideen arabera nahiz hitzarmenaren ondoriozko irizpideen arabera, egin beharreko jarduketak lehenesteko konpromisoa hartu zuen.

<sup>46</sup> [Hegazti-fauna eta linea elektrikoak EAEn. Hegazti-faunarako babes-eremuetako goi-tentsioko aireko linea elektrikoen inbentarioa eta arriskuen diagnostikoa\(2018\)](#)

<sup>47</sup> [Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresaren arteko lankidetzaren hitzarmena, linea elektrikoak egokitzeko eta hegazti-fauna babesteko.](#)

Zehazki, hitzarmena indarrean jarri eta hurrengo hiru urteetan urtean gutxienez 250 euskarri egokitzeko konpromisoa hartu zuen Iberdrolak, aldeek identifikatutako lineei dagokienez. Egokitu beharreko euskarrien kopurua gorantz berrikusiko da sortzeko proposatu den jarraipen-batzordean, 2018ko ekainaren 18ko Ebazpena betetzea lortzeko.

Bestetik, zaugarritzat edo galzorikotzat jotako hegaztiren bat talkaren nahiz elektrokuzioaren ondorioz hiltzen dela detektatzen bada, gertakaria eragin duen euskarritik hurbilen dauden eta bere jabetzakoak diren bost euskarriak egokitzeko konpromisoa hartu du Iberdrolak.

**Eraikuntza berriko lineak.** Eraikuntza berriko lineei dagokienez, argi dago horiek 1432/2018 Errege Dekretuko zehaztapenetara egokitu behar direla. Horrelakoetan, proiektuak izapidetzeko orduan, aintzat hartu behar dira 6.5. atalean aipaturiko ingurumen-kontrolari buruzko legedian eskagarriak diren zuzenketa- eta egokitzapen-neurriak.

Horri buruz, aipatu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren<sup>48</sup> bidez onetsi ziren behin betiko) honako hau txertatu dutela biodibertsitatearen tratamendurako nahitaez bete behar diren jarraibideen artean: goi-tentsioko linea elektrikoak instalatzen direnean, hegaztiak elektrokutatzea saihestuko duten eta horien kontra talka egiteko arriskua murriztuko duten gailuak jarriko dira, 2016ko maiatzaren 6ko Aginduarekin bat etorritik.

### **7.3. Hegaztien elektrokuzio- eta talka-gertakarien ingurumen-kontrola egiteko tresnak.**

1432/2008 Errege Dekretuaren ezarpen-eremuko goi-tentsioko linea elektrikoaren ondoriozko arriskuak prebenitzeko esparrua aztertu ondoren, egokia da euskal administrazio publikoek hegazti basati bat elektrokutatuta edo talka eginda hil edo zauritzen denean jarduteko dauzkaten ingurumen-kontrolerako mekanismoak aipatzea.

42/2007 Legearen 54. artikuluan, erabilitako metodoa edo ziklo biologikoaren fasea edozein izanda ere nahita hil, kaltetu, gogaitu edo asaldatu ezin daitezkeen hegazti basatiak kontserbatzea bermatzeko behar diren neurriak hartzeko agindua ezartzen da. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legeak ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko basafauna errespetatu egin behar da, eta euskal administrazio publiko eskudunek «*eskakizun ekologiko, zientifiko eta kulturei dagokien mailan*» eduki behar dituzte EAEko natura-ingurunean bizi diren basafauna-populazioak. Halaber, lege horren 23. artikulua ezartzen du euskal administrazio publikoek biodibertsitatearen erabilera jasagarriaren eta kontserbazioaren alde egin behar dutela eta biodibertsitatearen

---

<sup>48</sup> [128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak](#)

funtsezko prozesu ekologikoak mantendu behar dituela, biodibertsitatea kontserbatzeko estrategien, planen eta programen bidez.

### **7.3.1. Basafauna babesteko araudia betetzen dela egiaztatzeko ikuskapen-urriak.**

Batetik, espezie basatiak babesteko araudia betetzen dela ikuskatu eta kontrolatzeko eskumenak daukate euskal administrazio publikoek, eta horiek adieraztea komeni da.

- **Ingurumen-ikuskapenaren plangintza.** Natura eta espezie basatiak babesteko araudiak ikuskapen-eskumena ematen du, eta eskumen hori, prebentzio-xedez, ingurumen-araudia betetzen dela kontrolatzeko planen eta programen bidez erabil daiteke.

Ondorio horietarako, ingurumen-administrazioak dauzkan tresna batzuk aipa daitezke; hala nola, ingurumen-ikuskapenak egiteko planak daude, zeinak, batez ere, atmosfera kutsatu edo isurketak eragin ditzaketen jardueren nahiz instalazio industrialen ingurumen-ikuskapenei begirakoak diren. Plan horiek, halaber, lan-esparru egokia izan litezke ingurumen-administrazioaren ikuskapen-eginkizunak garatzeko. Ikuskapen-eginkizun horiek, besteak beste, ingurumen-legedia betetzen dela bermatzea dute xede, edota natur baliabideak babesteko eta espezie basatiak kontserbatzeko bestelako ingurumen-arazoak konpontzea. Hizpide dugun kasuan, 1432/2008 Errege Dekretuaren manu teknikoekin bat egiten ez duten eta dagoeneko badauden linea elektrikoetan hegaztien elektrokuzio- eta talka-gertakariak ikuskatu eta kontrolatzea izan daitezke eginkizunak.

Ingurumen-ikuskaritzak eskumen publikoak modu programatuan baliatzeko mekanismoak dauzka, 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenaren arabera arrisku handiagoa duten aireko lineetan hegaztien elektrokuzio- eta talka-gertakariak kontrolatzeko asmoz aurretik onetsi den ikuskapen-programa jarraituz.

Era berean, ikuskapenak programatuta ez dauden jarduketak egitea ahalbidetzen du, gertakariengatik edo animalia-zentroetan elektrokuzioak nahiz talkak kaltetutako animaliak jasotzeagatik aurkezten diren salaketen kasuan. Ikuskapen-eskumena baliatzean, linea elektrikoaren titularrari egotz dakioken kausaren batengatik hil edo zauritutako hegazti baten aurrean jartzen den salaketa edo gertakari bakoitza ondo sailkatu behar da, eta dagokion erantzuna eman.

-**Ingurumen-poliziak ingurumen-legedia betetzen dela zaintzeko egiten duen lana.** Ingurumen-ikuskapen eta -kontrolerako eskumena baliatu ahal izateko, eskudun ingurumen-administrazioak behar besteko bitarteko materialak eduki behar ditu, baita langile-kopuru nahikoa eduki ere, hegazti-faunaren elektrokuzio eta talken arazoari erantzun egokia eman ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legeak esaten duen moduan, kasu horretan eskudun foru-organoei dagokie basafauna babesteko araudia urratzeagatiko prozedura zehatzaileak hasi, izapidetu eta ebaztea.

Bada, ingurumen-poliziaren papera aipatu behar da. Basozainek egiten dute lan hori, hiru lurralde historikoetako basafauna babestu eta kontserbatzeko legediaren eremuan. Basozainek administrazio-polizia gisa esleituta dauzkaten eginkizunek hegazti basatiak babesteko araudia betetzen dela zaintzea dakarte. Kasu honetan, hegazti-faunak linea elektrikoaren kontra elektrokutatu edo talka egiteko arrazoiak detektatzea eta ikertzea litzateke zaintza-lan hori. Administrazio-poliziaren lanak egiten dituzten foru-funtzionarioek, agintaritzaren agenteak diren heinean, ikerketa-izapideak eta froga-jarduerak egiteko ahalmena daukate, ikuskapen-aktak eta txosten teknikoak idazteko. Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legeak honela definitzen ditu basozainak: funtzionario horiek administrazio publikoaren mendeko agintaritzako agenteak dira, eta, haien araudiaren arabera, izendapen korporatiboa zein den gorabehera, lan hauek dauzkate esleituta, besteak beste: batetik, basoko ondasun juridikoak zaindu, babestu eta horietan polizia-lanak egitea eta, bestetik, polizia judizialaren funtzioa betetzea, oro har, Prozedura Kriminalaren Legearen 283.6. artikulua ezartzen duen moduan. Halaber, epaileei, auzitegiei eta Fiskaltzari lagundu behar diete<sup>49</sup>. Agenteek, beraz, prestakuntza espezifikoak eduki behar dute eginda, eginkizun horiek behar bezala garatu ditzaten<sup>50</sup>.

Eginkizun horietan, basozainek Ertzaintzari lagundu behar diote, bai eta eskumenen erabileran esku har dezaketen beste segurtasun-kidego batzuei lagundu ere, ordenamendu juridikoak haiei ere esleitu baitizkie eskumenak, natura nahiz ingurumena kontserbatzeko xedapenak betetzen direla zaindu dezaten<sup>51</sup>.

Ikuskapen- eta zaintza-lanen eremuan hainbat agentek bat egiten dutenez, hegazti-faunaren kontserbazioaren ikuskerarekin lan egiten duten administrazioek esleituta dauzkaten askotariko funtzioen ondorioz, Ertzaintzaren Ingurumen Babeserako Zerbitzuaren, basozainen eta, hala badagokio, tokiko poliziaren arteko lankidetzaren instituzionala sustatu behar da, beharrezkoa baita<sup>52</sup>. Horri begira, koordinazio-neurriak hornitu behar dira, hegazti-faunaren ingurumen-zaintzan koordinatzeko mekanismoak indartu eta horiei segurtasun juridikoa emateko. Koordinazio horren oinarria printzipio batzuetan zehaztu behar da; besteak beste, hauetan: organo ikuskatzaile bakoitzaren eskumen materiala eta funtzionala, espezializazioa, eskuragarri dituen bitartekoak eta agintaritzako agenteek berrikusi

<sup>49</sup> Gai horri buruz, oso interesgarria da Antonio Vercher Noguera Auzitegi Gorenaren Ingurumen eta Hirigintza Salako fiskalaren artikulua hau: *"El medio ambiente y la necesidad de coordinación policial como forma de investigación eficaz en el ámbito penal"*. Diario La Ley, 9239. zk., 2018.

<sup>50</sup> 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Mendiei buruzkoa.

<sup>51</sup> 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 38.3.c) artikuluaekin lotuta, 45. artikulua.

<sup>52</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen 55.1.d) artikulua administrazio-poliziaren eginkizunak esleitzen dizkio bere eskumenen eremuan, ingurumenaren eta ingurunea babestearen arloan indarreko araudia betetzen dela zaindu dezan, betiere eremuan tokiko aginpideen alorra kontuan hartuta.

beharreko ingurune naturalarekiko duten hurbiltasuna. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren uztailaren 22ko 1/2020 Legearen 6.3. artikulua aipatu behar da (lege horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen da); izan ere, bertan zehaztuta dago Ertzaintzak tokiko poliziekin duen koordinazioa sustatzeko eskumena Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailarena dela.

- **Ingurumen-salatzailea, ingurumen-araudia betetzeko agente laguntzaile gisa.** Ingurumen-ikuspen eta -kontroleko eskumenak egikaritzean oso garrantzitsuak diren beste eragile batzuk herritarrak dira; izan ere, administrazioari laguntzen diote zaintza-lanak egiten, abisuen, jakinarazpenen eta salaketen bidez.

Alde batetik, herritarrek detektatzen dituzten gertakarien berri eman dezakete larrialdietako zerbitzuen bidez, gertakariok baloratu daitezten eta, hala badagokio, modu koordinatuan beharrezko kontrol- eta ikuskaritza-neurriak ezarri.

Bestetik, hegazti baten elektrokuzio- edo talka-gertakari baten berri ematen duen pertsonak edo elkarteak salaketa jartzeko aukera dauka, natura babesteko legediaren ustezko urraketa gertatu dela uste badu. Hegazti basati baten heriotzari buruzko salaketa jartzen duenak ingurumena babesteko ekintza publikoaren arloan interesduna dela alegatzen badu<sup>53</sup>, interesdun gisa hartu ahalko du esku, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4. artikuluan aitortutako baldintzetan.

Salatzailearen irudia (edo *Whistleblower*, zuzenbide anglosaxoian) aipatzen da orain dela gutxi onetsitako 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 Zuzentarauan, Batasuneko zuzenbidearen aurka egindako arau-hausteei buruz informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoa<sup>54</sup>. Europar Batasuneko zuzentzarau horren arabera, estatu kideek neurriak ezarri behar dituzte salatzaileak babesteko, salatzaileak mekanismo erabilgarria baitira ingurumen-alorrean dauden neurriak betetzen direla bermatzeko, eta horixe da esku artean dugun kasua, hegaztien kontserbazioari buruzko zuzentzarauari dagokienez. Horrela, zuzentzarauaren transposizioarako finkatu den epearen barruan (beranduenez, 2021eko abenduaren 17an ekarri beharko da), administrazio-jarduketan txertatu beharko dira salatzaileak babesteko neurriak. Babes-neurri horien artean dago salaketak egiteko kanpoko bitartekoak eta prozedurak ezartzeko betebeharra. Bitarteko horien bidez, salaketak egiteko bideak emango dira: salaketak idatziz (formatu elektronikoan edo paperean) zein ahoz (telefonoz) jartzea ahalbidetu beharko da, edota eskumenak dituen agintaritzako langile espezifikoeekin bilerak egin ahal izango dira. Agintaritza horrek mekanismoak ezarri beharko ditu, salatzaileari salaketaren

<sup>53</sup> Horri lotuta, 27/2006 Legeak, uztailaren 18koak, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituenak (2003/4/EE eta 2003/35/EE Zuzentzarauak), ingurumen-arloan herritarrek parte hartzeko legezko araua jasotzen du.

<sup>54</sup> Salatzaileek, hau da, erakunde baten barruan edo kanpoko agintaritza bati lanean jazotako ekimen gaitzesgarriak jakinarazten dituztenek edo jendaurrean adierazten dituztenek, kalteak prebenitzen laguntzen dute, eta interes publikoarentzako mehatxuak edo kalteak detektatzen dituzte, bestela ezkutuan geratuko lirakeenak.

izapideari buruzko informazioa arrazoizko epe baten barruan eman ahal izateko (hiru hilabeteren barruan, edo sei hilabeteen, behar bezala justifikatutako kasuetan).

### 7.3.2. Araudia urratzeagatiko neurri zehatzaileak.

**Administrazioko arau-haustek jazartzeko betebeharra.** Administrazio publikoek ahalmen horiek derrigorrez erabili beharra Espainiako Konstituzioaren 9.3. artikulutik eratorritako legezkotasun-printzipioaren eta arbitrariotasun-debekuaren ondorio saihestezina da. Legezkotasun-printzipioa (Espainiako Konstituzioaren 25. artikuluan sortzen da) delituei nahiz administrazioko arau-hausteei aplikatzen zaie. Bada, administrazio publikoek, oro har, ofizialtasun-printzipioa eta ekintza zehatzailearen derrigortasuna aplikatu behar dituzte.

Horrela, zehapen-espedientearen hasiera arautua da, eta administrazioaren betebeharra da administrazioko arau-haustek jazartzea. Doktrina juridiko garrantzitsuenak zeresana izan du zehatzeko ala ez zehatzeko orduan nahierako erabakiak hartzearen ondorio txarrei buruz. Muñoz Machadoren iritzi adierazgarri hau jasotzea merezi du, honako hau baieztatzen baitu, modu deskribatzailean: *«Egunero egiten diren arau-haustek adina expediente izapidetzea zaila denez, expedienteak hasteko derrigortasunari oztopoak jartzen zaizkio batzuetan. Zalantzarik gabe, objekzio horiei kontra egin dakieke, eta, gainera, benetako kale itsu batera eramaten gaituzte, legezkotasun-printzipioa eta bestelako balio nahiz konstituzio-printzipio batzuk aplikatzearen ikuspegitik begiratuta: **zigorrek ezartzeko ala ez ezartzeko aukera egongo balitz, eskudun organoaren irizpenekoa balitz, botere zehatzaileak bere disuasio-eraginkortasuna galduko luke** ziurrenik, eta botere horren erabilera, neurri handi batean, herritarren eta eskudun agintarien arteko harremanen mende geratuko litzateke. Horrek bide emango lieke ustelkeriari eta legezkotasunetik desbideratutako erabakiei, eta segurtasun falta juridiko izugarria eragingo luke, herritarrak ez lirakeelako legezko arauen mende egongo, administrazioaren apeten edo tolerantziaren mende baino»<sup>55</sup>*. Jurisprudentzia iritzi berekoa da. Auzitegi Gorenak, 2019ko urtarrilaren 28ko Epaian (494/2019 Errekurtsoa), ezartzen du administrazioak ezin dituela alde batera utzi zehapen-arloan dituen eskumenak, *«bere eskumenak, arlo horretan ere, ukaezinak baitira, eta legezkotasun-printzipioaren arabera gauzatu behar baititu eskumen horiek esleituta dituen organoak»*.

Laburbilduz, arau-hauste bat egon dela ikusita, administrazioak dagokion zehapen-espedientea abiarazi behar du, eremu horretan ez baitago administrazioaren diskrezionalitaterik.

**Ikuskapen-jarduketan igorpena.** Derrigortasun-printzipio horren ondorioz, ikuskapen-zerbitzuek interesdun baten salaketagatik edo ustezko arau-hausleak esanda gertakari bat detektatzen duten aldiro, ikuskapen-organoez egitatei

<sup>55</sup> Santiago Muñoz Machado. [Tratado de Derecho Administrativo y Derecho Público General. Tomo XII Actos administrativos y sanciones administrativas](#). 2015. Bigarren edizioa. 348. orrialdea eta hurrengoak.



buruzko txostena edo akta idatzi behar dute, eta hegaztiaren heriotzari edo lesioari buruzkoak izan daitezkeen frogak hartu.

Ikuskapenaren arduradunak salaketa bidali beharko du eskumenak dituen organora, aktarekin eta hartutako gainerako frogekin batera, eta hark dagokion zehapen-prozedura hasiko du.

Akta bidaltzeko eta dagokion espediente zehatzailea hastearen inguruan ebazteko betebeharra legezkotasun-printzipioaren ondoriozko lana da, eta ez, inola ere, aukera-kontu bat <sup>56</sup>. Natura babestearen inguruko lege-aurreikuspenak ez betetzeak beti ekarri behar du eskumen zehatzaileak nahiz ingurumen-erantzukizuneko eskumenak erabiltzea.

Horrenbestez, eskumena duen administrazio-organoari dagokio administrazio-espedientea abiarazteko erabakia hartzea, edonola ere. Erabaki hori behar beste arrazoituta egongo da, aktan jasotako egitateekin bat etorriko da, eta ordena publikoko nahiz legezkotasuna defendatzeko arrazoietan oinarrituko da, aukerako edo beste maila bateko irizpideak alde batera utziz. Halaber, ez da Zigor Kodearen ondoriozko eskumen zehatzailea baldintzatuko.

. **Hegazti-fauna elektrokutatuta edo talka eginda hiltzeagatiko zigorrak.** Hegaztien elektrokuzio- eta talka-gertakarien araubide zehatzailea Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean bertan jasotzen da.

42/2007 Legearen 80.1. artikulua administrazioko arau-haustetzat jotzen ditu baimenik gabeko suntsiketa, hilketa edo narriadura, galzoriko fauna-espezieei (b letra), zaugarritzat hartzen diren fauna-espezieei (k letra) edo Babes Bereziko Araubideko Espezie Basatien Zerrendan sartutako fauna-espezieei (n letra) eragiten zaienean. Era berean, p) letrak arau-haustetzat jotzen du hegaztiak ugalketa- eta haziera-sasoian daudenean asaldatu edo hiltzea, eta, espezie migratzaileen kasuan, baita haziera-tokietara itzultzeko bidean asaldatu edo hiltzea ere. Arau-hauste horiek larriak edo oso larriak izango dira, ingurumen-kaltearen neurriaren eta errepikapenaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legeak arau-hauste oso larritzat jotzen du, 75.5.e) artikuluan, galzoriko animaliak edo animalia zaugarriak suntsitu, hil edo narriatzea. 75.4.f) artikuluan, berriz, arau-hauste larritzat jotzen da espezieak suntsitu, hil edo narriatzea, espezie bakanak edo interes berezikoak direnean.

---

<sup>56</sup> Hain da horrela, ezen Zigor Kodearen 329. artikulua ingurumen-prebarikaziotzat jotzen duen nahitaezko ikuskapenak ez egitea, honela: «1. Agintari edo funtzionario publikoak, jakinda, aurreko artikuluetako industria edo jarduera kutsagarriei dagokienez, txostena egiten badu jarduera horiek baimentzen dituzten lizentzien alde, lizentzia horiek, ageri-agerian, legearen aurkakoak izanik, edo, **jarduera horiek ikuskatzean, isilpean gordetzen badu jarduerok arautzen dituzten lege edo izaera orokorreko xedapen arau-emaileak hautsi direla edo nahitaezko ikuskapenak egiten ez baditu**, orduan, horri, kode honen 404. artikuluan ezarritako zigorrak gain, sei hilabetetik hiru urte arteko espetzealdi-zigorra edo zortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio».

Eskumen zehatzaileari dagokionez, 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 82. artikulua adierazten duen bezala, eskudun foru-organoei dagokie prozedura zehatzaileak hasi, bideratu eta ebaztea.

Azpiratu beharra dago administrazioko arau-haustea sortzen dela, baldin eta hegazti baten suntsiketa, heriotza edo narriadura ekarri duen elektrokuzio- edo talka-gertakariaren bat baldin bada. Lehenik eta behin, arau-haustea sortzeko, gertakaria ez da zertan babes-eremu bateko linea elektriko batean gertatu. Bigarrenik, araudiaren urraketa babes-araubideren batean sartutako espezie basati guztiei hedatzen zaie, legedi estatalak arau-haustetzat jotzen baitu [Babes Bereziko Araubideko Espezie Basatien Zerrendan eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan](#) sartutako edozein espezie suntsitu, hil edo narriatzea.<sup>57</sup>

Hegazti-faunari kalteak eraginez gero aplika daitezkeen araubide zehatzaile bat ezartzen duen beste ingurumen-araudi bat inpaktuaren ebaluazioa erregulatzen duen ingurumen-legedia da: 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa. Bada, dekretu horrek, 20.3.b) artikuluan, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren arloko arau-hauste larritzat jotzen du *«ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren arabera proiektua egiteko eduki behar diren ingurumen-baldintzak eta babes-neurriak nahiz neurri zuzentzaileak ez betetzea»*.

Hemen, aipamena egin behar zaio Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Gorenaren doktrinari; besteak beste, maiatzaren 21eko 1299/2018 Epaiari<sup>58</sup>. Izan ere, epai horren arabera, natura kontserbatzeko legedia urratzeagatik eskumen zehatzailea erabiltzeak eta kalte-ordaina ezartzeak legearekin bat egiten du, katalogatutako animalia-aleen heriotza eragiteagatik. Linea elektrikoaren enpresa titularrei zigorra ezartzen zaie hegazti bat haien euskarri batean bermatzeagatik hiltzen denean, baldin eta 1432/2008 Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean eskatzen den egokitzapen-proiektua aurkeztu ez badute. Enpresek errekerimendua jaso eta urtebeteko epean aurkeztu behar dute proiektua, eta, hala egin ezean, auzitegi horren arabera, *«legean aurreikusten den betebeharraren omisio arduragabea»* egiten da. Hori dela-eta, hegazti-espezieak hil edo narriatzeagatik arau-haustea gertatuko da, heriotza euskarria ez konpontzeagatik gertatzen bada; hau da, euskarria arauz adierazi eta ezarri diren eskakizunetara ez egokitzeagatik gertatzen bada.

Bestalde, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legea urratzeagatik linea elektriko baten enpresa titularri ezarritako zigorra berretsi du Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Gorenaren 2020ko irailaren 10eko 2872/2020 Epaiak, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean hegazti-fauna kontrolatu eta haren jarraipena egiteko lanak egin behar zirela jaso arren ez zuelako horrelakorik egin. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenak, baldintzen artean, ingurumen-inpaktuaren azterlanean proposatutako Ingurumena Zaintzeko Programa betetzea xedatzen

<sup>57</sup> Zerrenda honetan, Bernako Hitzarmenaren [III. eranskinean](#) jasotakoak sartzen dira, non hegazti gehienak dauden (arruntenak kenduta; hala nola, uso arrunta, arabazozo pikarta, belea, txolarrea, mika edo kaio hauskara).

<sup>58</sup> <http://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6decf516a2c24226/20180809>

zuen, zeinak helburu hau zeukan: linea elektrikoaren trazadura osoan aldizkako laginketak eginez hegaztientzat arriskutsuak diren linea-zatiak detektatzea.

### **7.3.3. Ingurumen-kalte konpontzeko neurriak.**

Natura kontserbatzeko araudia urratzeagatik eska daitekeen erantzukizun zehatzailearekin batera, Ingurumen Erantzukizunari buruzko 26/2007 Legeak ingurumen-erantzukizunaren eskumena erabiltzea aurreikusi du, espezie basatiei eragindako ingurumen-kalte lehengoratzeko.

Kasu honetan, 26/2007 Legearen 18. eta 21. artikuluek ingurumen-administrazioaren eskumen hau jasotzen dute: ingurumen-kalteen mehatxua dagoela uste duenean, kalte horiek prebenitu, saihestu eta konpontzeari begirako neurriak berehala hartzea eska diezaioke operadore erantzuleari, eta neurriok betetzea galdatu, ebazpen arrazoitu baten bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1/2014 Legegintzako Dekretuko aurreikuspenen arabera, naturagune babestuak, fauna eta flora kudeatzeaz arduratzen diren foru-organoetako ingurumen-administrazio eskuduna litzateke ingurumen-erantzukizuneko prozedurak izapidetu eta ebazteko ingurumen-organo eskuduna.

## **8. Espezie babestuei kalteak eragiteagatik ingurumenaren kontra egindako delituaren ondoriozko zigor-erantzukizuna.**

Azkenik, adierazi beharra dago zigor-ekintzak lehentasuna duela egitateen larritasunak faunaren babesaren kontrako balizko delitua dakarrenean. Kasu horretan, Zigor Kodearen 334. artikulua faunaren babesaren kontrako delitutzat jotzen du basafunako espezie babestuak suntsitzea, natura babesteko legedia hausten baita, edota espezie horiek ugaltzea edo migratzea eragotzi edo zailtzen duten jarduerak egitea. 326. bis artikulua zigortu egiten ditu animaliei edo landareei kalte handiak eragin diezazkieketen edo natur sistemen oreka larri kaltetu dezaketen instalazioen ustiapena. Bestalde, 330. artikulua naturaguneen kontrako delitutzat jotzen du kalifikaziorako balio izan duen elementuren bat larri kaltetzen duen edozein jarduera.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 82. artikulua, berriz, zigor-erantzukizunaren lehentasunaren printzipioa jasotzen du gainerako administrazio-jarduera zehatzaileentzat. Kasu horietan, administrazio bideratzaileak eskudun jurisdikzio-organoari emango dio erruduntasun-testigantza, eta prozedura zehatzailearekin jarraitzeari uko egingo dio, agintaritzak judizialak prozedura amaiaraziko duen epai irmorik edo ebazpenik ematen ez duen bitartean.

Batetik, delitu baten arrazoizko zantzuren baten berri duen edonork igorri beharko lizkioke espezie basati babestuei egindako kalteei buruzko espedienteak zigor-arloko jurisdikzio-organoei edo, hala badagokio, Fiskaltzari. Langile publikoei dagokienez, Prozedura Kriminalaren Legearen 262. artikuluan zehaztuta dago

beren kargua dela-eta delitu publikoen berri izatean berehala salatu beharko dituztela gertakari horiek. Salaketa horiek Fiskaltzari, instrukzio-epaileari edo, ageriko delitua izanez gero, hurbilen dagoen polizia funtzionarioari bidali beharko zaizkie. Hori egiten ez baldin bada, diziplinazko erantzukizuna (EZLren 259. artikulua) edo zigor-erantzukizuna sortu daiteke, Zigor Kodearen 408. artikuluan jasota dagoen bezala; horren arabera, karguaren betebeharra urratuz ezagutzen dituen delituen aurka egiteari nahita uzten dion agintaria edo funtzionarioa zigortzen da.

Horrelakoetan, delitua izan daitezkeen egitateen berri duten ingurumen-agenteei agintaritzak judizialari edo Fiskaltzari eman beharko diote gertakari horien berri. Era berean, basozainek ere polizia juridiko orokorraren eginkizunak betetzera irits daitezke, prebentziozko lehenengo izapideak egiteko xedez.

**Ingurumen Fiskaltzak hegazti-faunaren heriotzaren prebentzio eta kontrolean duen lan nabarmena.** Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Ingurumen eta Hirigintza Atalak garrantzi handiko zenbait jarduketa egiten ditu hegazti-fauna babestuen heriotzak administrazioan kontrolatzeko, eta ebazpen honetan azaldu egin behar dira.

2016an, Estatu osoan arazoa handia zela ikusita, Fiskaltzak Gobernuaren 254/16 Espedientea abiatu zuen, linea elektrikoetan hiltzen diren hegaztien heriotzak aztertzeko.

Ondoren, linea elektrikoek ondorioz hiltzen diren hegaztien arazoari jarraipena egiteko sarea sortu zuen Fiskaltzak. Sare horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoek ere parte hartzen dute, eta arazoaren benetako tamaina zehaztea nahiz irtenbide posibleak jorratzea du helburu. Horretarako, gai hauei buruzko informazioa bildu du sareak: linea elektrikoak egoera txarrean egoteagatik elektrokutatuta edo talka eginda hil diren hegaztien kopuru zehatza eta ingurumen-legedia urratzeagatik (eta, hala badagokio, Ingurumen Erantzukizunari buruzko 26/2007 Legearen babespean) hasi eta ebatzi diren administrazio-espedituen kopurua. Sareak, halaber, 1432/2008 Errege Dekretuak administrazioari eta konpainia elektrikoek ezarritako betebeharren betetze-mailari buruzko informazioa biltzeko balio izan du, arau horretan xedatutakoa benetan betetzen ote den baloratu ahal izateko. Beste proposamenetako bat gertakari horien ikuskapen-ereduak egitea izan da, bai eta jarduketa-protokoloek buruzko informazioa eta linea elektrikoek kartografia osoa edukitzea ere.

2018ko martxoaren 15ean, Ingurumen eta Hirigintza Salako fiskalak *Linea elektrikoek jarraipena egiteko jarduketa-ildoak* izeneko dokumentu bat aurkeztu zuen. Bertan, gertakariak eta hutsuneak egiaztatzeko prozesuen eta akta-ereduen mapa bat eta enpresa titularrei jakinarazpenak egiteko akta-eredua jasotzen dira. Dokumentu hori autonomia-erkidegoetako eskudun organismoetara bidali da.

Fiskaltzaren amaierako balorazioan oro har adierazten denez, eskudun administrazioek ez dituzte linea elektrikoek kontra talka egiteagatik edo

elektrokutatzeagatik hildako hegazti-faunaren heriotzaren legezko garrantzia ikertzeko espediente zehatzaileak irekitzen, ingurumen-arloko legedia aplikatuz, eta, era berean, ez dute Ingurumen Erantzukizunari buruzko 26/2007 Legearen aurreikuspenen ondoriozko ingurumen-erantzukizuna eskatzen.

2019ko uztailaren 29an, Fiskaltzaren Ingurumen eta Hirigintza Atalak eskudun administrazio publikoetara jo zuen, 1432/2008 Errege Dekretuaren aurreikuspenak zorrotz bete behar direla gogorarazteko, *«elektrokuzioa edo talka babes-eremuetatik kanpo gertatzen denean ere hegazti-fauna babestu behar dela ahaztu gabe»*. Halaber, Ingurumen Erantzukizunari buruzko 26/2007 Legea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legea, autonomia-erkidegoetako legeak eta elektrizitatearen sektoreko legedia aplikatuz, hegazti-faunaren heriotza edo lesioak linea elektrikoetan elektrokutatzearen edo talka egitearen ondoriozkoak izan diren zehazteko behar diren jarduketak administrazio-bidean egin behar direla adierazi du. Eraitza baiezkota bada, administrazioak espediente zehatzaile bat irekitzea eragin behar du, eta egokiak diren prebentzio-, saiheste- eta konponketa-neurriak harrarazi behar ditu.

Bestetik, adierazten duenez, kasuan-kasuan egokitzen den fiskaltza probintzialari espediente hori helarazi behar zaio, fiskalak bere irizpena eman dezan hegazti-faunaren heriotzaren edo lesioen ondorioz abiatzen diren espedienteen edo jardueren ingurumen-garrantziari buruz, galzoriko espezieak kaltetzen direnean edo zigor-erantzukizuneko zantzuren bat dagoenean, poste edo linea berean antzeko beste gertakaririk izan bada eta, azken kasu horretan, jabeari hutsuneak konpontzeko eskatu eta hark halakorik egin ez badu, Zigor Kodearen 334.1.1. eta 326. bis artikuluetan jasotzen den ingurumenaren kontrako ustezko delitua eginez.

Xede horietarako, Fiskaltzak eskudun ingurumen-administrazio guztiei eskatzen die Ingurumen eta Hirigintza Atalari urtero bidal diezaiotela lurralde bakoitzeko gertakarien kopuruari buruzko txostena, hasitako espedienteak, ezarritako zigorrak eta hitzartutako prebentzio-, saiheste- eta konponketa-neurriak zehaztuz.

## Ondorioak

**9. Hegazti-faunaren egungo ingurumen-babesaren egoeraren balorazioa, linea elektrikoek Euskal Autonomia Erkidegoan eragindako arriskuei dagokienez.**

**9.1.Euskal Autonomia Erkidegoan detektatutako hegazti-faunaren elektrokuzio- eta talka-kasuen kopurua mugatua da, beste lurralde batzuekin alderatuz gero.**

Aurrekarietan aipatu dugun informazioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan detektatutako hegazti-faunaren elektrokuzio- eta talka-kasuen kopurua mugatua da, beste lurralde batzuekin alderatuz gero. Gomendio honen aurrekarietan aipatutako datuek islatzen dutenez, azken lau urteetan (2017tik 2020ra) kaltetu

eta foru-zentroetan hartu diren hegaztien kopurua 116 alekoa izan da (64 Araban, 30 Bizkaian eta 22 Gipuzkoan).

**Detektatutako kopuruak ez du benetako heriotza-tasa islatzen.** Nolanahi ere, basozainen ikuskapen-zerbitzuek edo bestelako ingurumen-agenteeek detektatu ahal izan dituzten elektrokuzio-gertakarien ondoriozko heriotzak eta basafaunarako zentroetan hartutako hegaztiak bakarrik islatzen dituzte eskura ditugun datuek. Gaiari buruzko ikerketek adierazten duten moduan, hautemandako elektrokuzio-kasuak hegazti basatien benetako heriotza-tasaren zati txiki bat dira. Espainiako Elektrokuzioari buruzko Liburu Zuriak<sup>59</sup> zera esaten du hautemandako hegaztien heriotza-kopuruari buruz: *«Izebergaren punta da, kaltetutako aleen % 15 bakarrik aurkitzen direla balioesten baita»*.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren txostenak berak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko orografiak eta landare-estaldurak lurralde lau eta irekiagoetan baino heriotza gutxiago detektatzea eragin dezakete.

**Ez dago detektatutako gertakarien kopuruari buruzko erregistro zentralizaturik.** Adierazi beharra dago eskuratu dugun informazioan ez dela aipatzen Euskadin arazo honek kaltetutako hegazti-faunaren multzoari buruzko erregistro zentralizaturik. Beraz, zail samarra da fenomeno honen errealitateari buruzko zenbaki eguneratu bat edukitzea.

**Nabarmendu egin behar da Euskadiko linea elektrikoek eragindako hegazti-faunako espezieen garrantzia.** Problematika honen handitasunean eragiten duen beste faktore bat heriotza-kausa honek kaltetzen dituen espezie batzuk kontserbatzeko dagoen interes berezia da. Eskura ditugun datuetatik ondoriozta daitekeenez, kasu-kopurua txikia bada ere, azken lau urteetan 14 hegazti-espezie ezberdini eragin zaie, eta horietatik sei babes bereziko espezieen zerrendan<sup>60</sup> daude, eta bost Hegaztien Zuzentarauaren I. eranskinean<sup>61</sup> zerrendatuta daude. Halaber, garrantzitsua da espezie mehatxatuen euskal zerrendan zaurgarritzat (miru gorria, adibidez), espezie bakantzat (hontz handia edo arrano txikia) edo interes berezikotzat (sai arrea edo belea) jotzen diren hegaztien kasuak hauteman izana. Miru gorria, gainera, galzoriko Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan ere badago.

Termino kuantitatiboetan, eskura dauzkagun datuen arabera, sare elektrikoek kontra talka gehien egiten duen edo gehien elektrokutatzen den espeziea sai arrea da Euskadin: azken lau urteetan, 28 sai arre, 14 zikoina zuri eta 8 zapelatz arrunt hil dira elektrokutatuta.

**Linea elektrikoek hegazti migratzaileei eragindako heriotzak benetan murrizteko betebeharra.** Fenomeno honen benetako zenbaketa alboratuz, espezie

<sup>59</sup> GREFA, 2020. [Libro Blanco de la electrocución en España. Análisis y propuestas](#). AQUILA a-LIFE (LIFE16 NAT/ES/000235). 100 or. Madril

<sup>60</sup> Zapelatz arrunta, zikoina zuria, belatz gorria, koartza hausgara, urubi arrunta, koartzatxo txikia.

<sup>61</sup> Arrano txikia, sai arrea, miru gorria, miru beltza, hontz handia.

migratzaileak babesteko nazioarteko hitzarmenetatik (Booneko Hitzarmena, AEWa, Raptors MOU eta Bernako Hitzarmena) datozen betebeharrak juridikoak nabarmendu behar dira. Europako, Estatuko edo autonomia-erkidegoko babes-araubidearekin batera, euskal botere publikoek linea elektrikoaren ondorioz hildako hegaztien monitorizazio- eta jarraipen-ekintzak egin behar dituztela esaten dute, fenomeno hori Euskal Autonomia Erkidegoan benetan murriztea nahi bada.

## **9.2. Euskal Autonomia Erkidegoa, gutxika, babes-eremuetako linea elektrikoak egokitzeko neurrien ezarpenean aurrera egiten ari da.**

Arartekoak daukan informazioaren arabera, 1432/2008 Errege Dekretuan jasotzen diren epe zorrotzetatik kanpo bada ere, Euskal Autonomia Erkidegoak aurrera egin du araudian eskatzen diren neurriak praktikan jartzeko orduan, babes-eremuetako linea elektrikoak eskakizun teknikoetara egokitzea eskatzeari dagokionez.

Erregulazio horren eremuan, 1432/2008 Errege Dekretuan dagoeneko badauden lineak egokitzeko jasotzen diren tresna juridikoak onetsi ditu Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-administrazioak. 2016ko maiatzaren 6ko Agindua hegazti-fauna babesteko eremu gisa mugatu du lurraldearen herena. Halaber, 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean, eremu horietako linea kaltetuen inbentario bat egin du EAeko ingurumen-administrazioak, eta, are garrantzitsuagoa dena, dagoeneko badauden linea horien egokitzapena lehenesteko irizpide bat ezarri du, elektrokuzio-arriskua dutelako. Babes-eremuei eta manu teknikoekin bat egiten ez duten lineei buruzko informazioa publikoa da, eta hainbat tresnaren bidez begiratu daiteke (hala nola, GeoEuskadi plataformaren bidez<sup>62</sup>).

2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean sartuta dauden lineak egokitu ahal izateko praktikan jarri diren neurriei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-administrazioak hitzarmen bat sinatu du Iberdrola enpresarekin, Euskadin betebeharrak hori duen banaketa-sare elektrikoaren zati handienaren jabea baita. Hitzarmenean, bada, egokiak ez diren lineak egokitzeko proiektua aurkezteko betebeharrak finkatzen da, eta 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean jasotzen diren irizpideen arabera lehenetsi beharko dira jarduketak. Halaber, urtero lehenetsuzko lineen 250 euskarri berritzeko konpromisoa jasotzen da, bai eta modu partikularrean jardutekoa ere, zaurgarritzat edo galzorikotzat jotzen den hegaztien bat horrelako gertakari baten ondorioz hiltzen dela detektatzen bada.

Aditu batzuek esan duten moduan, 1432/2008 Errege Dekretutik datozen betebeharrak betetzea sustatu nahi da hitzarmen horiekin. Sinatzen diren hitzarmenek inola ere ezin dezakete betebeharren eskagarritasuna ordezkatu<sup>63</sup>, ez eta ingurumen-administrazioari dagozkion eskumen zehatzaileen erabilera baldintzatu ere.

<sup>62</sup> <https://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGeoEuskadiWAR/index.jsp>

<sup>63</sup> *"Evaluación del estado jurídico de la electrocución de avifauna y formulación de propuestas de mejoras para la efectividad en el cumplimiento de la normativa"* Eva Blasco; Carlos Javier Durá; Juan Manuel Pérez-García. 2020ko urriaren 19a, Actualidad Jurídica Ambiental, 105. zk., 62. or.

### **9.3. Hegazti babestuen elektrokuzio- edo talka-kasuak detektatzen direnean ikuskapeneko foru-zerbitzuek esku hartzeko protokoloak daude.**

Ikuskapeneko foru-zerbitzuen lana aipatu beharra dago, esku hartzeko protokolo bat ezartzen joan baitira hegazti-faunari kalte egiten zaion kasuetarako, euskarria babes-eremuan egon ala ez. Protokolo horien bidez, foru-administrazioak linearen titularrak errekeritu ahal izan du, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legeko manuei jarraikiz, euskarri elektrikoa araudiaren manuetara egokitzeko neurri egokiak har ditzan.

**Ezin izan da zehaztu arrisku handiagoko zonen ikuskapenean plangintzarik dagoen.** Esku hartzeko protokoloa egotetik harago, erakunde honek jaso duen informazioaren arabera, ez da zehazterik egon ikuskapen normalizatuan plangintzarik edo programarik ote dagoen, egokitu gabeko lineak eta linea arriskutsuagoak dauden eremuetan fenomeno honek eraginda hiltzen diren hegaztien (batez ere, 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean sartzen diren espezieen) heriotza-tasa egiaztatzeko.

**Herritarrek elektrokuzio-kasuak detektatzen laguntzen dutela nabarmendu behar da.** Eragindako hegazti gehienak herritar laguntzaileen salaketa zehatzen edo basozain-zerbitzuen esku-hartzearen bidez detektatzen dira. Batzuetan, linearen erakunde titularrak berak ematen du gertakariaren berri.

Fenomeno honen benetako neurriaren inguruan gehiago jakiteko, herritarrek, elkarteek edo boluntario-taldeek linea elektrikoaren zaintza-lanetan parte hartzea aurreikusi duten esperientzia interesgarriak daude; hala nola, LIFE Followers proiektua<sup>64</sup>.

**Ikuskapen-lan egokia egiteko, bitarteko pertsonal eta materialak behar dira.** Beste lurralde batzuetan ikuskapena sustatzeko garatu dituzten jarduerak onen barruan, ikuskapen-lan programatuetan txakur-unitateak edo bestelako teknologiak baliatzea aipa daiteke. Teknologia horretan, besteak beste, dronak nabarmendu ditzakegu, oso irisgarriak ez diren tokietan ikuskapen zabalagoa egiteko aukera ematen dutelako.

Beste polizia-kidego batzuen jarduketari dagokienez, Sepronak nazio-mailako operatibo bat ezarri du (Fulgor operazioa), hegaztien elektrokuzio-kasuetan ikerketak egiteko; bereziki, kopuruagatik eta eragindako espezieengatik garrantzitsuenak diren babes-eremuetan.

**Era berean, babes-eremuetatik kanpoko linea elektrikoetan hiltzen diren hegaztien inpaktua ebaluatu behar da.** Interesgarria litzateke 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean sartuta dauden babes-eremuetatik kanpoko linea elektriko egokitu gabeez hegaztien heriotza-tasan duten inpaktu erlatiboa ebaluatzen premiarik

---

<sup>64</sup> LIFE Followers boluntarioritza-proiektu bat da, SEO/BirdLife elkarteak sortua, eta [Libro Blanco de la electrocución en España. Análisis y propuestas](#) izeneko liburuan aipatzen da.



inguruan hausnartzea. Aurrekarietan aipaturiko kasuren batekin ikusi dugunez, hegaztien elektrokuzio-kasuek babes bereziko espezieei eragiten jarraitzen diete babes-eremuen inbentarioan sartuta ez dauden linea elektrikoetan.

Horri buruz, Gaztela-Leongo Autonomia Erkidegoak hartutako erabakia aipa daiteke: 2020ko urtarrilean, hegazti-fauna talken eta elektrokuzioaren aurrean babesteko eremu gisa mugatu zuen lurralde osoa<sup>65</sup>, hegaztien mugikortasun handi eta aurreikuspen txikian oinarrituta. Valentziako Generalitatea ere lehentasunezko babes-eremuak zabaltzeko aukera aztertzen ari da.

#### **9.4. Nahitaez erabili behar dira eskumen zehatzailea eta ingurumen-erantzukizuneko ekintza.**

Aurrekarietan emandako informazioan ikusi denez, foru-administrazioek ez dituzte beti erabiltzen eskumen zehatzailea eta ingurumen-erantzukizuneko ekintza eskagarriak. Askotan, linearen operadorearen erantzukizuna zehaztea zaila delako gertatzen da hori, edo euskarria babes bereziko eremuetatik kanpo dagoelako.

**Nahitaezkoa da, halaber, Ingurumen Fiskaltzari espezie babestuen elektrokuzio-eta talka-kasuen berri ematea.** Bermatu egin behar da ikuskapen-zerbitzuek zein administrazio bideratzaileak betebeharrak hau betetzen dutela: elektrokuzio-kasu guztiak Fiskaltzari edo jurisdikzio-organo eskudunari igortzea, ingurumenaren aurkako delitu izan daitezkeen neurrian.

Nabarmendu beharra dago hiru lurraldeetako foru-organoek parte hartzen dutela Fiskaltzaren Ingurumen Atalak hegazti-faunaren heriotzei jarraipena egiteko sustatu duen sarean. Sareak biltzen dituen neurrien barruan, Fiskaltzara urtero txostena igortzeko betebeharra dago. Txosten horretan, lurralde bakoitzeko gertakari-kopuruari buruzko informazioa eman behar da, hasitako espedienteak, ezarritako zigorrak eta hitzartutako prebentzio-, saiheste- eta konponketa-neurriak zehaztearekin batera.

\* \* \* \*

---

<sup>65</sup> [FYM/79/2020 AGINDUA, urtarrilaren 14koa, hegazti-fauna babesteko eremuak mugatzen dituen. Horietan, hegaztiak goi-tentsioko aireko linea elektrikoek kontra talka ez egiteko eta ez elektrokutatzeke neurriak aplikatu ahalko dira.](#) Bada, honako arrazoi hauek erabili dituzte eremuok eguneratu eta zabaltzeko argudio gisa: hegaztien mugikortasun handi eta aurreikuspen txikia, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan sartuta dauden espezie batzuek hartzen duten azalera handia, haziera-banaketa zabalak eta Gaztela-Leongo lurralde guztiak negupasarako duen garrantzi handia, azalera guztian baitaude etzalekuak sakabanatuta. Bestetik, eskualdeko eremu zabalak zeharkatzen dituzten hegazti migratzaileek mugimendu nomadikoak egiten dituzte maiz janari-bila, eta berme moduan erabil ditzakete euskarri elektrikoak. Gaztela-Leonen, elektrokuzio-mapak egin dituzte espezie katalogatuetako animalia basatiak suspertzeko zentroetan hartutako aleetan oinarrituta, eta, haietan baieztatu denez, espezie mehatxatuak eskualdeko azalera guztian elektrokutatzen dira. Hori dela-eta, euskarri elektrikoek ezin hobeto isolatuta egon behar dute haziera-, negupasa- eta iragate-eremuetan, zeinek Gaztela-Leongo Autonomia Erkidegoko azalera guztia hartzen duten.

**10. Euskal Autonomia Erkidegoan hegaztien linea elektrikoekin dituzten elektrokuizio- eta talka-gertakarien ikuskapena eta kontrola hobetzeko gomendioak eta iradokizunak.**

**10.1. Hegaztien elektrokuizio- eta talka-gertakariei buruzko ingurumen-informaziorako sarbidea hobetzeko gomendioak.**

**10.1.1. Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoan detektatutako hegaztien elektrokuizio- eta talka-gertakariak eragindako hegaztien erregistro zentralizatua edukitzea gomendatzen du.**

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, eskudun foru-organoekin koordinatuta, elektrokuizio- eta talka-gertakariak Euskal Autonomia Erkidegoan kaltetutako hegaztien erregistro bat sortzea sustatu beharko luke.

Erregistroak honako hau bildu beharko luke: Euskadin detektatutako gertakari guztiei buruzko datuak eta informazioa, toki zehatzaren kokapena, linea elektriko eta euskarri eragilea eta delako hegazti-espezia. Halaber, otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitako txostenak bildu beharko lituzke, baita gertakariaren ondoren egindako kontrol-neurriari buruzko informazioa ere.

**10.1.2. Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari iradokitzen dio elektrokuizio- eta talka-gertakariak kaltetutako hegazti-faunaren erregistro publikoko informazioa hedatzea bultzatzea eskudun foru-organoekin koordinatuta, dagoeneko badauden informazio publikoko plataformen bidez.**

Zabaldu beharreko informazioaren barruan, oso interesgarria litzateke Euskal Autonomia Erkidegoko elektrokuizio- eta talka-kasu eta -gertakari guztien zerrenda egitea (toki zehatza, linea eta euskarri eragilea eta delako espezia), eragindako ingurumen-kaltearen nahiz tartean diren linea elektrikoak eska dakizkiekeen konponketa-neurrien monitorizazio publikoa eta jarraipena egin ahal izateari begira.

Era berean, aurkeztu edo dagoeneko egikaritu diren konponketa-proiektuei buruzko informazioaren hedapena ere sustatu beharko litzateke, 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean sartuta dauden lineei dagokienez. Informazio horretan, Eusko Jaurlaritzaren eta Iberdrolaren artean sinatutako hitzarmena betetzeko orduan jarraitu diren jarduketari buruzko informazio puntuala ere sartu beharko litzateke.

## **10.2. Dagoeneko badauden lineak abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuko manu teknikoetara egokitzea sustatzeko gomendioak.**

**10.2.1. Arartekoak 1432/2008 Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarraren aurreikuspena gogorarazi nahi dio Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari. Bertan eskatzen denez, enpresa titularrek, 2018ko ekainaren 18ko Ebazpena jakinarazi eta urtebeteko epean (2019ko uztailearen 18an amaitu zen), Euskal Autonomia Erkidegoko linea arriskutsuenen inpaktua murrizteko zuzenketa-proiektuak aurkeztu behar zituzten.**

Betebehar hori bete ezean, 1432/2008 Errege Dekretuaren 10. artikulua adierazten duen moduan, aplikagarria den araubide zehatzailean xedatutakoari helduko zaio.

**10.2.2. Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari iradokitzen dio, Iberdrola enpresarekin sinatutako hitzarmenaz eta Estatuko administrazioak hitzartzen dituen finantzazio-neurriez gain, oraindik egokitu ez diren lineetan zuzenketa-proiektuak benetan betetzea sustatzeko bestelako formulak bila ditzala.**

Hala, elektrizitatearen sektoreko legedian eta ingurumen-inpaktuari buruzko legedian esku hartzeko jasotzen diren aukerak aztertu beharko liriateke, 1432/2008 Errege Dekretuarekin bat egiten ez duten baina ingurumen-arloko ikuskapen- edo kontrol-prozeduraren baten mende dauden lineei dagokienez.

Zehazki, otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretuko eta martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 31. eta 32. artikuluetako aldizkako ikuskapenaren inguruko aurreikuspenak aipa daitezke, dagoeneko badauden linea elektrikoak indarreko araudi teknikora egokitze eskatzea ahalbidetzen baitute, lineen egoera dela-eta natur ondasan edo bitartekoentzat (adibidez, hegazti-faunarentzat) arrisku larria baldin badaukarte.

Era berean, ingurumen-izapide horren mendeko linea elektrikoek kasuan, Arartekoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. eta 52. artikuluetako aurreikuspenak gogorarazi nahi ditu, ingurumen-inpaktuaren adierazpena betetzen dela ziurtatzeko jarraipena edo zaintza egitea edo, are, natura babesteko baldintzetan nabarmen eragiten duen araudi berria indarrean jartzen bada, adierazpenari aldaketak egitea eskatzen baitie hala instalazio elektrikoa baimendu duen organo izendunari, nola ingurumen-organoari.

Formula horien barruan, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian dauden linea arriskutsuenetan elektrokuzioa eta talka saihesteko aukera azter liteke. Bada, linea

horiek lurperatzea sustatu ahalko litzateke, aukerak ebaluatu ondoren, teknikoki eta finantzarioki ahal den tokietan<sup>66</sup>.

**10.2.3. Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari iradokitzen dio hegazti-faunarentzako babes-eremuak zabaltzeko aukera azter dezala, elektrokuzio- edo talka-gertakari bat baino gehiago eragiten dituzten tokiak ere bil daitezzen.**

Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari iradokitzen dio 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan hegazti-faunarentzat aurreikusten diren babes-eremuak ofizioz zabaltzeko aukera azter dezala, abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuko manu teknikoekin bat egiten ez duten eta 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean jasotzen ez diren lineen inguruan elektrokuzio- edo talka-kasu egiaztatuak detektatzen direnerako, toki horiek kategoria berri bat era dezaten.

**10.3. Hegaztien elektrokuzio- eta talka-gertakariei buruzko ingurumen-ikuskapena hobetzeko gomendioak.**

**10.3.1. Arartekoak egokitu gabeko linea elektrikoak eta, bereziki, linea arriskutsuenak kontrolatzeko ikuskapen-programa bat bultzatzea gomendatzen du.**

Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin koordinatuta haien lurraldean ikuskapen-programa bat bultzatzea gomendatzen die fauna babesteko araudiaren ikuskapenean eskumena duten foru-administrazioei, 1432/2008 Errege Dekretuko manu teknikoekin bat egiten ez duten linea elektrikoaren inguruan (bereziki, 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean sartuta dauden linea arriskutsuenen inguruan) elektrokutatu diren edo talka egiten duten hegaztien heriotzak edo lesioak detektatzeko. Ikuskapen-programa horrek kontuan hartu beharko luke, batetik, kaltetutako espezie babestu horiek garrantzitsuak direla eta, bestetik, dagoeneko badauden linea elektrikoaren multzoan fenomeno honek daukan benetako irismena zein den jakin behar dela.

**10.3.2. Arartekoak gogorarazi nahi du prestakuntza espezifikoak duten langileak eta bitarteko material nahikoak eduki behar dituela ikuskapen-programak.**

Eskudun administrazioek haien eskumenak erabiltzeko orduan bitarteko mugatuen barruan lehentasunak ezartzeko ahalak dauzkaten arren, Arartekoak eskudun foru-administrazioei gogorarazi nahi die basozaintzako ikuskapen-zerbitzu eskudunak prestakuntza espezifikodun langile nahikoz hornitu behar direla eta eskura dauden bitarteko material onenak eskaini behar direla linea elektrikoaren inguruan elektrokutatu diren edo talka egin duten hegaztien heriotzak edo lesioak detektatzeko.

---

<sup>66</sup> [Arartekoaren Gomendia, 2020koa, hiri inguruetan dauden goi-tentsioko hari elektrikoaren arazoari buruzkoa](#)

### **10.3.3. Arartekoak ikerketa-operatiboak sustatzea iradokitzen du, Euskadiko linea arriskutsuenetan elektrokutatzen diren edo talka egiten duten hegaztien kasuak identifika daitezzen.**

Xede horietarako, Arartekoak foru-aldundietako basozaintzako ikuskapen-zerbitzuei iradokitzen die ikerketa-operatiboak bultza ditzatela Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailarekin zuzenean koordinatuta, hegaztien elektrokuzio- eta talka-kasuak identifika daitezzen; bereziki, 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean jasotzen diren linea elektriko arriskutsuenei dagokienez. Lan horretan, Ertzaintzak Euskal Autonomia Erkidego osoan garatzen duen ingurumen-poliziaren zerbitzuekin koordinatu beharko lirateke basozaintzako zerbitzuak.

### **10.3.4. Arartekoak herritarrek laguntzea sustatzeko eta ingurumen-salatzailea babesteko neurriak hartzea iradokitzen du.**

Arartekoak fauna babesteko araudiaren ikuskapenean eskumena duten foru-administrazioei iradokitzen die hegaztien elektrokuzio- eta talka-gertakarien salaketa susta dezatela Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin koordinatuta. Herritarrek ingurumen-betebeharrak betetzen lagundu dezakete, eta herritar laguntzailearen irudia sustatu beharko litzateke, kaltetutako hegaztiei buruzko salaketak jartzeko plataforma erraz eta arin bat eskainiz eta hartutako neurrien ezarpenari buruzko informazio etengabea emanez.

Administrazio-neurri horiek salaketak idatziz zein telematikoki aurkezteko gaur egungo bitartekoak ahalbidetu eta hobetu behar dituzte, eta kasu bakoitzean ezarritako administrazio-prozedurari buruzko informazioa eta laguntza eman behar dute. Natura-ondarea eta biodibertsitatea babesteko legediari egiten zaizkion urraketan berri ematen duten herritarren bermeak aitortu eta sustatu behar ditu administrazioak, 2019/1937 Zuzentarauak jasotzen duen moduan.

**Ingurumena defendatzeko ekintza publikoa.** Pertsona batek ingurumen-salaketa bat aurkezten baldin badu, Arartekoak gogorarazten du, ingurumena defendatzeko ekintza publikoa egikaritzuz, horren inguruan gauzatu daitezkeen ikerketa-espeditenteak, espediente zehatzaileak eta ingurumen-erantzukizuneko espedienteak izapidetzean legeria prozesal administratiboak interesdunei ematen dizkien eskubide berdinak izango dituela salatzaile horrek.

#### **10.4. Fauna babesteko araudia ikuskatzeko, zehatzeko eta ingurumen-kaltea konpontzeko ahalak baliatuz hobeto betetzea sustatzeko gomendioak.**

##### **10.4.1. Arartekoak eskudun foru-administrazioei gogorarazten die ofizioz sustatu behar dituztela fauna babesteko araudia urratu ahal izan duten gertakariak ikuskatu eta ikertzeko neurriak.**

Arartekoak gogorarazi nahi du ikuskapen-zerbitzuak salaketa baten bidez edo bestela elektrokuzio- nahiz talka-gertakari bat egiaztatzen duenean ikuskapena egiteko eskumena duen foru-organoak dagokion ikerketa-espeditentea izapidetu behar duela.

Arartekoak azpimarratu egin nahi du ikuskapeneko foru-organoek, beste polizia-kidego batzuekin koordinatuta, hegazi baten elektrokuzio- edo talka-kasu bat detektatzen den aldiro beharrezko ikerketa-lanak sustatu behar dituztela ofizioz. Ikuskapen-izapide horiek, hala badagokio, elektrokutatutako hegaziaren laginak hartzea, gertakaria eragin ahal izan duen euskarriaren titularra identifikatzea eta, babes-araubide europar, espainiar edo autonomikoren bat edo nazioarteko hitzarmenen bat (Booneko Hitzarmena, AEWA, Raptors MOU eta Bernako Hitzarmena) edukiz gero, espezie kaltetuaren kontserbazio-egoerari eragindako ingurumen-kaltea egiaztatu eta zehatzeko neurriak hartzea bermatu beharko lukete. Agintaritzako agenteak derrigorrez diligentsia horiek jaso beharko ditu, dagokion txostenean edo aktan.

Arartekoak adierazten du derrigorrezkoa dela ikuskapenaz arduratzen den agintaritzako agenteak zehapen-espeditentea hastea erabakitzeke eskumenak dituen organora akta berehala bidaltzea eta, espezie basatiei kalte handiak eraginez gero, babes-araubideren batean daudenez, baita ingurumen-erantzukizuna eskatzeko espeditentea bidaltzea ere. Halaber, hurrengo gomendioaren arabera, egitatearen berri eman beharko dio zigor-jurisdikzioari.

##### **10.4.2. Arartekoak eskudun foru-administrazioei gogorarazten die espeditente zehatzaileak izapidetu behar dituztela fauna babesteko araudia urratu ahal izan dela detektatzen dutenean.**

Arartekoak gogorarazten du ebazteko eskumenak dituen administrazio-organoak arrazoizko epe batean eman beharko duela administrazio-espeditentea hasteari buruzko ebazpena eta erabaki horren berri eman beharko diela interesdunei (salatzailea horien artean sartu beharko da). Erabaki hori behar beste arrazoituta egongo da, aktan jasotako egitateekin bat etorriko da, eta ordena publikoko nahiz legezketasuna defendatzeko arrazoietan oinarrituko da, aukerako edo beste maila bateko irizpideak alde batera utziz.

Arartekoak gogorarazi nahi du zehapen-eskumena erabiltzea ezinbestekoa dela eta ingurumen-legedian izendatutako organo eskumendunek ofizioz sustatu behar dutela, Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenekoak diren alorretan aplikatu

beharreko zehapen-prozedurari buruzko araubidearekin bat eginez, dagokion amaierako ebazpena eman arte.

**10.4.3. Arartekoak gogorazi nahi du eskudun foru-administrazioek dagokion espedientea hasi behar dutela hegaztiei eragindako ingurumen-kalte handiak ordaintzea eskatzeko.**

Arartekoak eskudun foru-administrazioei gogorarazten die Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legean erregulatzen diren prebentzio-, saiheste- eta konponketa-neurriak zehazteko espedientea eska daitekeela, babes-araubide europar, espainiar edo autonomikoren batean edo nazioarteko hitzarmenen batean (Booneko Hitzarmena, AEWA, Raptors MOU eta Bernako Hitzarmena) sartuta dauden espezie basatiei ingurumen-kaltea eragin zaiela egiaztatzen den gertakarietan.

Era berean, ondare-erantzukizuneko espedientea irekitakoan, kontserbazio-egoera ona eragozten duten ondorio kaltegarri handiak sortzen direnean, eskudun foru-organoak amaierako ebazpeneraino izapidetu beharko du espedientea ofizioz, eta Fiskaltzari horren berri eman.

**10.5. Arartekoak fauna babesteko araudia kontrolatzeko eskumena duten foru-administrazioei gogorarazten die Fiskaltzara bidali behar dituztela fauna babesteko araudiari egiten zaizkion urraketen espedienteak.**

Arartekoak ingurumen-araudia kontrolatzeko eskumena duten euskal administrazioei gogorarazten die zigor-erantzukizunaren lehentasun-printzipioa bermatu behar dutela fauna babesteko araudiari egindako urraketa ingurumenaren kontrako delitua izan daitekeenean.

Modu horretan, langile publiko guztiek, ikerketa- edo zehapen-fasea edozein izanik ere, zigor-jurisdikzioan jakinarazi beharko dituzte Zigor Kodearen arabera babes-araubideren bat duten hegaztiei eragin dieten elektrokuzio- edo talka-gertakariak. Jakinarazteko behar hori ikuskapenaz arduratzen diren langileek, espedientea izapidetzen duten funtzionarioek eta ingurumen-erantzukizuna zigortzeko edo eskatzeko eskumenak dituzten organoek izango dute.

Kasu horretan, langile publikoek derrigorrez bidali beharko dituzte akta eta administrazio espedientea Fiskaltzara edo, hala badagokio, eskudun agintaritzara judizialera, bertan baloratu ditzaten. Hala dagokionean, gainera, eskumenak dituen organora ere bidali beharko dute, martxan dagoen espedientearen izapidea eten dadin, hain zuzen ere.

ararteko

Herriaren Defendatzailea  
*Defensoría del Pueblo*

Herritarrak hartaratzeko bulegoak

Araban  
Prado, 9 •  
01005 Vitoria - Gasteiz  
Tel.: 945 13 51 18 • Faxa: 945 13 51 02

Bizkaian  
Albia eraikina - San Bizente 8, 11.a  
48001 Bilbao  
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan  
Arrasate, 19-1.  
20005 Donostia - San Sebastián  
Tel.: 943 42 08 88